

GAIA: INGURUNE SOZIALERA EGOKITZEKO HEZKUNTZA PLANAK •

EKARPENA: GORKA VELASCO • GALDEIDAZUE: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ •

HEZKIDETZAZ: BLOGAK • HARITZ BERRI • ARITZ SOUND SYSTEM

hh  
hik hasi

134

4 EURO • 2009KO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

## Carles Font

“Lasaitasun eta  
segurtasun  
fisikoa eta  
afektiboa ematen  
duen espazioa  
eskaintzen  
badugu, haurrak  
diren eran  
azalduko dira”



KARRIZKETA

# ...irakurtzea gustatzen zait, eta zer?



5  
URTETIK  
AURRERA



13  
URTETIK  
AURRERA



8  
URTETIK  
AURRERA



7  
URTETIK  
AURRERA



12  
URTETIK  
AURRERA



# aurkibidea



**8**  
gaia

## INGURUNE SOZIALERA EGOKITZEKO HEZKUNTZA PLANAK

Kataluniako Generalitateak etorkinak Ingurune Sozialera gokitzeke Hezkuntza Planak (Pla Educatiu d'Entorn) ezarri ditu hainbat herritan katalanaren erabilera eta kohesio soziala bultzatzeko helburuz. Horiek ezagutu nahi izan ditugu.



**16**  
elkarrizketa

## CARLES FONT

Psikomotrizitate arloan aditua da Carles Font eta gai horri buruz hitz egin dugu harekin. Gelan baretasun psikikoa egotearen garrantzia azpimarratu du, eta horretarako segurtasun fisikoa eta segurtasun afektiboa egotea beharrezkoa dela dio, baita aurrak helduak errespetatzen duela sentitzea ere.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## INGURUNE SOZIALERA EGOKITZEKO HEZKUNTZA PLANAK

KATALUNIAKO "PLA EDUCATIU D'ENTORN"

**16** elkarrizketa

CARLES FONT

**24** ekarpenak

Gaur egungo BeHlak. Hezkuntzaz hausnartzen

**28** hezkidetzaz

Hezkidetzak IKTen eskutik: blogeatu nahi?

**30** galdeidazue

Zer egin dezakegu eta zer egin behar dugu eskola gizartera gertura dadin?

Inigo Ramirez de Okariz

**33** berriak

**40** nora joango gara?

Haritz Berri Baserri Eskola

Txikienak baserri girora gerturatzeko aukera

**42** Atzeko atetik

Aritz Sound System

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtZA S.A.L. Azaleko irudia: Carles Font. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-XII-18). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



# editoriala

# urtarrila

## Lehentasuna hezkuntzari!



*Hezkuntzak herri baten garapenean duen funtsezko eginbeharrean sinesten ez den bitartean, hezkuntza ez da kontsideratuko herriaren eta herritarren aldeko inbertsio gisa.*

Horixe da, azken asteotan, Baionako karrketan zabaldu den oihua. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, denak elkarrekin, Frantziako Errepublikako Xavier Darcos Hezkuntza ministroak 2009ko irailetik aurrera ezarri nahi duen Hezkuntza Erreforma gaitzetsi dute. Erreforma hori, gainera, hezkuntza komunitateko partaideekin akordiorik bilatu gabe bultzatu nahi du Darcosek.

Mobilizazioek hartu duten indarraren aurrean, azkenik, ministroak iragarri du ez duela erreforma martxan ipiniko heldu den udazkenean.

Erreforma horrek, besteak beste, neurri hauek aurreikusten ditu:

2012 urtera bitartean 90.000 postu desagertzea hezkuntza sisteman; aurtentzen, jada, 11.200 izan dira murriztutakoak, eta heldu den ikasturtean beste 13.500 kenduko lituzke. Murrizketa horiek ikas-maila guztietan aplikatuko lirateke, Haur Hezkuntzatik Unibertsitatera arte.

Gainera, Lizeo mailan hainbat eskaintza ezabatzea pentsatu du. Lanbide

Heziketaren kasuan, berriz, lau urteko prestakuntza izan ordez, hiru urtetakoa izango litzateke.

Era berean, BEP tituluaren desagertzea planteatu du. Beraz, kolegiotik atera ondoren ikasleak bi aukera besterik ez lituzke izango: baxo orokorra edo ikasketa profesionalak. Bestetik, zailtasunak dituzten ikasleentzako laguntza zerbitzu bat aurreikusten du erreformak, baina kurso horiek ordaindu egin beharko dira.

Azkenik, Carte Scolaire kentzea proposatu du. Horrek, lizeo txiroen eta aberatsen arteko desorekak handituko lituzke.

Askorentzat Frantziako errepublikako hezkuntza sistema eredugarria izan da duen izaera berdintzaileagatik, laiktasunagatik, eta abarregatik.

Frantziako Hezkuntzak ezaugarri horiek balitu ere, erreformatu nahi diren aldeak kontuan, sistema horren oinarria zuzenean kolpatuko du. Herritar guztien hezkuntzarako aukera berdintasunean eta heziketaren kalitatean sakon-

duko ote dute, bada, neurri horiek? Begibistakoa da hezkuntzako langileen maila horretarainoko murrizketak zein ondorio dakarren kalitateari dagokionean, adibidez.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikasleen hezkuntza erreforma bidean da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko ikasleena erreformatu zuten lehen. Eta hor gabiltza, euskaldunok, Espainiako eta Frantziako erabakien gora-beheran batera eta bestera!

Georges Jacques Danton-ek esan zuen: *“Après le pain, l'éducation est le premier besoin d'un peuple”*.

Hala da guretzat ere, hezkuntza Euskal Herriaren lehentasunezko beharra da; herria den heinean eta euskalduntasuna bere herrian gutxitua den neurrian.

Urte berri on denoi, eta ea aurtentzen bizi lagun ditugun estatuak ari diren gisan, guk ere gure Hezkuntza Sistemaren antolaketan sakontzen jarraitzen dugun; bide zuzenagotik eta egokiagotik, ahal dela!

# kronika

Itunpeko ikastetxeetako langileek greba egin dezakete berriro ere urte hasieran. Abenduaren 17an elkarretaratzea egin zuten Gasteizen, Eusko Legebiltzarraren aurrean, LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, beren lan baldintzak ikastetxe publikoetako langileek dituztenekin parekatzeko eskatuz.

“Finantziario akordioa lan baldintzak hobetzeko” zioen pankartaren atzean bildu ziren langileak eta administrazioak entzungor egiten jarraituz gero, ez dute baztertzeko berriro ere grebara jotzea. Azaroaren 12an egin zuten aurrekoa, eta sindikatuek emandako datuen arabera, % 80ko jarraipena izan zuten.



Berria

## Hizkuntza ereduaren lege proiektua gelditzeko eskatu dute ikasleek

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatu duen hizkuntza ereduaren lege proiektuaren aurkako mobilizazio eguna izan zen joan den abenduaren 17an. “Iruzuraren legeari ez!” lelopean ehunka ikasle atera ziren kalera haien ustez hizkuntza ereduaren erreformak dituen hutsuneak salatuz. Bi orduko geldialdiak egin zituzten eskolan eta unibertsitatean eta elkarretaratzeak ere egin zituzten, horietako asko Eusko Alkartasuna alderdiaren egoitzen aurrean, alderdi horretako kide baita Tontxu Campos Hezkuntza sailburua. Guztira, 950 pertsona inguru elkartu ziren.

Eskolak Euskaldundu herri ekimenak deitu zituen mobilizazioak, erreformak haien ustez ez baitu ikasle guz-

tiak euskalduntzea bermatuko eta hori dela eta “euskara desagerrarazi nahi dutenen neurriko proposamena egitea” leporatu diote Camposi.

Eskolak Euskaldunduk lege proposamenak “hutsune ikaragarriak” dituela salatu du. Helburu zehaztugabeak dituela, euskara orduak soilik % 52 direla, irakasle euskaldunak izateko neurri zehatzik jasotzen ez dela eta legea finkatzeko 15 urteko epea izango dela, salatu dute besteak beste. Eta horrekin batera, lege proposamena “euskalduntzea bermatuko ez duena, sindikatu abertzale guztien eta hezkuntzako zein euskalgintzako eragileen babesik gabea” dela azpimarratu nahi izan dute.

Lege egitasmoa “porrotera kondenatua dago, eta euskalduntze prozesuari kalte konpenezina egingo dio”, ikasleek esan dutenez. Hori dela eta, Hezkuntza Sistema Nazionalaren beharra aldarrikatu dute beste behin ere eta aurrerantzean, horren aldeko borrokan jarraituko dutela berretsi dute.

Bestalde, Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez hizkuntza ereduaren aldatetarako lege proposamena “onartzekoa” da, baina “ez da nahikoa”. Izan ere, haien ustez, ikasgaiaren % 60 euskaraz ematen badira, horrek ez du bermatuko lege egitasmoan bertan euskararen ezagutzaz zehaztutako helburuak betetzea.

Gure jendartearen legea ahulena ezabatu eta bere lekua hartzea da. Norgehiagoka horretan hezten dira haurrak haurtzaindegitik.

Arno Stern



Berria

## Ikasleen protestek jarraipena izango dute urtarrilean

Iparraldeko ikasleek, Xavier Darcos, Frantziako Hezkuntza ministroak iragarri duen erreformaren kontrako mobilizazioak indartuko dituzte urtarrilean. Urtarrilaren 29an grebarako deia egin dute irakasleek eta zerbitzu publikoetan diharduten sindikatuek, baina egun hori iritsi aurretik ere, mobilizazioekin jarraituko dute ikasleek.

Abendu hasieran abiatu zuten borroka ikasleek eta protesta jendetsuak izan ziren. Lauga eta Bernat Etxepare lizeoetan bi astez hutsik egon ziren ikasgelak blokeoen eraginez. Horiek izan ziren protesta abiatzen lehenak, baina pixkanaka ikastetxe gehiago lotu zitzaizkien: Doni-

bane Garaziko Nafarroa, Donibane Lohitzuneko Ravel, Angeluko Saint-Anne lizeo pribatua eta Baionako Paul Bert ikastetxea, hain zuzen ere.

Darcosek iragarri duenez, hezkuntza erreforma atzeratu egingo dute, eta beraz, ez da datorren ikasturtean indarrean sartuko, baina horrek ez du esan nahi erreforma bertan behera geratuko denik, atzeratu dutela baik. "Berme falta" ikusten dute ikasleek eta horregatik erabaki dute ministroaren iragarpenaren ondotik ere, protestan jarraitzea.

Protesten bidez, Frantziako Hezkuntza Nazionalak ezarri nahi dituen hainbat murrizketa eta erreforma errefusatu nahi dituzte ikasleek. Erreforma horren arabera, 2012. urtera bitartean 90.000 lanpostu desagertuko dira hezkuntza sisteman, horietatik 11.200 aurten, eta beste 13.500 heldu den ikasturtean. Bestalde, lizeo mailan hainbat eskaintza desagertuko dira, eta Lanbide Heziketaren kasuan, prestakuntza lau urtekoa izan ordez, hiru urtekoa izango da. Ikasleen ustez, horrek balioa kenduko dio titulazioari.

Era berean *carte scolaire* deiturikoa desagertuz "lizeo txiro eta aberatsen arteko aldeak oraino handiago izanen direla" beldur agertu dira ikasleak.

Seaskarekin lortutako hitzarmena baliorik gabe utzi du Paueko Akademia Ikuskaritzak. Euskararen Erakunde Publikoak 2009ko xedeak eta aurrekontuak aurkeztu ditu eta horien artean, ez da agertzen Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Ministerioaren arteko hitzarmenik. Urtarrilean hasi ziren bilerak eta ekainean akordioa lortu zuten bi aldeek baina Paueko Akademia Ikuskaritzak abenduan jakinarazi duenez, adostutako akordioa ez du aintzat hartzen. Seaskaren iritziz, Frantziako Hezkuntzak irtenbiderik gabeko egoera batera eraman du auzia eta Euskararen Erakunde Publikoaren eginkizuna da orain traba horiek deuseztatzea. Bordeleko Errektoretzak hitzarmen batera heltzeko prozedura aurkeztu dio EEPri, baina Seaskaren ustez, hori, aurrez egindako ibilbidea berriro egitea litzateke. Hori dela eta, hitzarmena baliagarri bihurtzeko eskatu dio EEPri.

# GAIA

Ingurune Sozialera  
Egokitzeko Hezkuntza planak

*Kataluniako "Pla Educatiu d'Entorn"*







**Pere Mayans**

KATALUNIAKO GENERALITATEKO HEZKUNTZA  
DEPARTAMENTUKO HIZKUNTZAREN MURGILTZE  
ETA ERABILERA ZERBITZUKO BURUA

**Kataluniako Generalitateak etorkinak Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planak (Pla Educatiu d'Entorn) ezarri ditu hainbat herritan. Zehazki, egitasmoarekin adostasuna eta konpromisoa adierazi duten 80 udalerritan ezarri dituzte planak, esperimentu moduan, eta, aurrerantzean, Kataluniako herri guztietan aplikatu nahi dituzte. Heziketan, eskolak eta familiak ez ezik ingurune guztiak du eragina, eta hori kontuan hartuta diseinatu dituzte plan horiek, katalanaren erabilera eta kohesio soziala bultzatzeko helburuz.**

**G**

## Gizarteak hartu behar du belaunaldi berrien heziketaren ardura

Europar Batasuneko Batzordeak 2003ko azaroaren 25ean emandako ebazpenak hauxe dio, hitzez hitz: eskolan, ikaskuntza irekirako giroa sortu behar da, ikasketak ez uzteko, horren kontra eta gazteen egonezinen kontra borrokatzeko, eta gizarteak gazteak barneratzea errazteko. Ebazpen horren edukia aintzat hartzen dute, besteak beste, Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planek.

Eskolak eta familiak hezteko funtzioa duten instituzio bakarrak izateari utzi diote. Biek ere, aldaketa handiak bizi izan dituzte azken urteetan, eta gizarteak pertsonak modu integralean hezteko egin dien eskakizunekin, gainzka egin dute. Baina, hezkuntzaren bi dimentsioak (pertsonala eta soziala) ezin dira bereizi, gizarte garatu baten hezkuntza-helburuak lortu nahi badira.

Hezkuntzak eragin handia izan dezake aukera berdintasuna bultzatzeko, eta horregatik sortzen du eskolak horrenbeste itzaropen. Ikasleen arrakastak kohesio soziala derrigorrez bermatzen ez duela jakina den arren, jakina da eskola ona beharrezko baldintza dela bazterketaren arriskua saihesteko. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da garatutako gizarte guztietan hezkuntza arrakastatsua izatea; lehenetsua duen helburu estrategikoa da hori. Dena den, jakina da, eskola mota oso ona izanik ere, helburu hori ezin dela soilik eskolan lortu. Izan ere, hezkuntza, guztion egitekoa da, leku jakinik eta ordu-tegi jakinik ez duen jarduna. Inguru guztiak hezten du eta guztiok hezten dugu, edo, hobeto esanda, inguru guztiak hezi beharko luke eta guztiok bultzatu beharko genuke hezkuntza prozesu hori.

Gizarteak hartu behar du belaunaldi berrien heziketaren ardura, ikastetxeek ezin baitute euren lana gizartearen

ren babesik gabe eta pertsona guztien parte-hartze aktiborik gabe egin.

Norabide horretan, eta egoera horri erantzun integral eta komuna emateko, Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuak Ingurumen Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planak jarri ditu abian. Plan horiek gizarteak dituen beharrei erantzun nahi diete, eta haurren eta gazteen bizitzako hainbat eremuren arteko hezkuntza ekintza dinamizatzea eta koordinatzea dute helburu. Ikasle guztiei eta hezkuntza komunitate osoari zuzentzen zaizkie, baina, bereziki, gutxiespen handiagoa jasaten duten sektoreei. Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planek hezkuntza proiektu integratuagoa sendotzea dute helburu, hezkuntza sinergia sortzeko gai izango den proiektua.

Baina, zer dira, zehazki, Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planak? Hezkuntza lankidetzarako ekimen irekiak dira, haurren eta gazteen hezkuntza beharrei erantzun integratua eta komuna emateko, eta hezkuntza ekintza eskola eremutik haratago dinamizatzeko sortuak.

Oinarrian dagoen ideia erraza eta garbia da: gizarteko sektore guztiek haurren eta gazteen heziketan ardura dutela sentitzen badute, gizartearen eta herritarren eraikuntza harmonikoa egitea erraza izango da.



# Oinarri nagusiak

## Herritarren heziketak honelakoa beharko luke, plan horien arabera:

**Integrala:** Pertsonaren alderdi guztiak hartu beharko lituzke kontuan. Ez da gaitasun intelektualak garatzera mugatu behar, gaitasun sozialak eta gizartearen elkarrekin bizitzeko gaitasunak eskaini behar ditu.

**Etengabea:** Bizitza osoan luzatuko da. Ez da soilik eskolan, haurtzaroak eta gaztaroak irauten duten bitartean aplikatu behar, bizitza osoa hartu behar du.

**Sustraitua:** Nortasunari dagozkion erreferentzia partekatutako izatea beharrezkoa da, pertsonak etorkizuneko proiektuetara lotzeko eta elkarbizitzari zentzua emateko.

**Kohesionatzailea:** Integrazio soziala bultzatzeko. Etorkinen etorrerak erronka berriak zabaltzen ditu, eta kohesio soziala bilatu behar da kulturarteko hezkuntzaren bidez, eta, marko eleaniztun batean, katalanaren erabilera normalizatuaren bidez.

**Inklusiboa:** Pertsona guztiak hartuko dituena. Horretarako, beharrezkoa da aukera berdintasuna bermatzea eta edozein motatako bazterketak alde batera uztea.

**Sareanegina:** Guztiek dutelako ardura. Beharrezkoa da pertsona guztien artean hezkuntzarako sare batsortzea. Horrek, gazteenen hezkuntzan lanean ari direnen artean, ongi koordinatutako lana eta koherentziaz egindako lana eskatzen ditu.

Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planek 0-18 adin tartea hartzen dute, eta, ikastetxeekin batera, hezkuntza ikuskaritzarekin, hezkuntza zerbitzuekin, administrazioekin (udalak eta Generalitatea) eta parte hartu nahi duten elkarte eta erakunde guztiekin definitzen dira.

### Planen printzipioak zazpi dira:

- Parte hartzen duten hezkuntza eragile guztien inplikazioa, ikastetxeen lidergoarekin eta udaletxearen lidergo instituzionalarekin.

- Hezkuntza prozesuan esku hartzen duten sektore guztien parte hartzea eta koordinazioa.

- Sarean lan egiteko, oinarritzko tresnatzat konfiantza, elkarriketa eta kontsentsua hartzen ditu.

- Dezentralizazioa. Helburuak lortzea ahalbidetuko duten tokian tokiko ekimenak bultzatzeko eta hezkuntza-eragileek lotura eta identifikazioa sentitzeko.

- Berrikuntza eta hezkuntza kalitatea, hezkuntzaren erronka berriei erant-

zun zehatzak emateko.

- Finantzaketa partekatua inplikaturako administrazioen aldetik.

- Iraunkortasuna. Hezkuntzaren jarraipena eta koherentzia lortzeko beharrezko diren ekintzak bermatzeko.

### Helburu nagusiak

- Ikasle guztien arrakasta lortzea, dimentsio guztietan (pertsonala, soziala, akademikoa eta laborala), haur guztiek nortasun aberatsa eta orekatua gara dezaten, eta bizitzaren erronkei erantzuteko gaitasunak eta gaurko gizartearen elkarbizitzeko gaitasunak eskura ditzaten.

- Kulturarteko hezkuntzaren bidez, kohesio soziala, berdintasuna eta katalanaren erabilera bultzatzea. Horren helburua, herritar guztiek partekatuko dituzten balioen espazio komuna sortzea da. Horrek, desberdintasuna errespetatuz, elkarbizitza erraztuko du.

### Helburu zehatzak hauek lirateke:

- Eskola arrakasta handitzea, kolektiboaren arteko aldeak murriztuz.

- Hezkuntza sareak indartzea.

- Kolektiboaren arteko aldeak murriztuz, aisialdiko ekintzetan parte hartzea indartzea.

- Familia, eskola eta ingurunearen arteko loturak indartzea.

- Katalanaren presentzia eta erabilera hobetzea.

### Esku hartzeko eremuak:

- Hainbat hezkuntza-eragileren prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea.

- Haur guztien eskolatze egokia eta orekatua bultzatzea.

- Udalerrira iristen diren ikasleentzako eta familien harrera erraztea.

- Ikasle guztien eskola arrakasta bultzatzea.

- Hezkuntza, osagarriak diren jardueren bidez, eskolatik haratago bultzatzea. Jarduera horiek katalanaren erabilera, kulturarteko hezkuntza eta kohesio soziala bultzatu behar dituzte.



- Ikasleei orientazio eta jarraipen akademikoa eta profesionala eskaintzea.

- Elkarren arteko ezagutza errazteko eta aurreiritziei aurre egiteko, topaketarako eta elkarbizitzarako espazio-ak sortzea.

- Gizartearen eskaerei erantzutea: osasun hezkuntza, herritartasunerako hezkuntza, indarkeriaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren prebentzioa, ingurumen hezkuntza...

### Noiz aplikatzen da?

Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planak eskola ordutegia hartu behar du, baina baita eskolaz kanpoko denbora ere. Beraz, familian, eskolan, aisialdian eta abarretan landu behar diren planak dira.

### Sustatze lana

Planaren sustatzaile izango den taldea dago, eta horrek plana dinamizatzen du, bere antolaketa egitura propioa hartzen duen arte. Hezkuntza-eragile nagusiek esku hartu behar dute, baina ezin dugu ahaztu haur eta gazteak planen garapenean kide aktiboak

direla. Eta, 0-18 adin tartea hartzeko, beharrezkoa da planak, herri batean, gutxienez, haurtzaindegi bat, eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bana hartzea. Planaren espazio naturala hezkuntzagune bat da, eta zonaldeko ikastetxe guztiek hartu beharko lukete parte gune horretan: haurtzaindegiek, herriko ikastetxe guztiek (publikoek zein itunpekoek), Heziketa Bereziko ikastetxeek, Arte ikasketetako zentroek eta Helduen Heziketarako zentroek.

### Metodologia

Metodologiari dagokionez, hezkuntza-eragileen arteko elkarlanak sarean egindako lanean oinarritu behar du. Norberaren interesetatik interes partekatuetara igarotzeko aukera emango duen proiektu komuna izan behar du. Hezkuntza-eragileen arteko trukerako espazioak sortu behar dira, hezkuntza hobetzeko prozesuak ahalbidetzeko, eta erabakiak adostasunez hartu behar dira.

### Ebaluazioa

Bestalde, Ingurune Sozialera Ego-

kitzeko Hezkuntza Planak ebaluatu egiten dira, etengabe hobetzeko helburuarekin. Eragile bakoitzak bere ikuspegitik egiten du ebaluazio propioa, eta, gero, ondorioak bateratu egiten dituzte.


### Planen egituraketa

Lidergoa, Generalitateko Hezkuntza Departamentuak eta udaletxeak dute, baina planak irekiak dira, eta udal-erri eta zonalde bakoitzak bere beharretara egokitu behar du. Beharrezkoa da, era berean, dinamizatzaileak, lurraldea ezagutzen duten eta prestakuntza egokia duten profesionalak izatea.

Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planek komunitate sentimendua sortzen dute, eta horren banean, helburuak lortzea errazagoa dela dirudi. Beraz, sareak ematen die indarra Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planei.

Katalunian, modu esperimentalean ezarri dituzte orain arte horretako planak, baina etorkizunean Kataluniako herri eta hiri guztietan aplikatzeko asmoa dute.

## Herrietako PLANEN ANTOLAKETA



# Mataroko esperientzia

## MATAROKo Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Plana



**Conxita CALVO**


MATAROKO HEZKUNTZA ZINEGOTZIA

Bartzelona ondoan dagoen Mataro herria izan da Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Plana abian jarri duenetako bat. 120.000 biztanleko herria da eta etorkinek biztanleriaren % 13 hartzen dute. Beste datu batzuk aipatzearren, 17 urte arteko herritarrak 21.084 dira, eta adin tarte horretan, % 18,5 dira etorkinak. Atzerriko jatorria duen ikasleen portzentaia, berriz, % 15ekoa da. 3-12 urte bitartean, eskola publikoan ikasleen % 26 etorkinak dira. Publikoan, baina 12-16 urte bitartean, % 11,2, eta itunpeko ikastetxeetan (3-16 urte) ikasleen % 9,5 da etorkina.


Errealitate horretatik abiatuta diseinatu zuten Mataron Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Plana. Lehen fasean, hezkuntza zerbitzuak eta udal zerbitzuak harremanetan jarri ziren. Horrez gain, ikastetxeekin bildu ziren

une horretan zer egiten ari ziren eta ziztuzten beharrak zein ziren jakiteko, eta gauza bera egin zuten AMPA delakoeekin, hau da, guraso elkarteekin. Bigarren fasean, haur eskolekin eta helduen heziketa zentroekin, Auzo Elkar-

### Mataroko populazioaren garapena 1900-2006



### 0-17 urte bitarteko atzerriko etorkinen garapena





tearekin, irakasleen mugimenduko ordezkariekin eta auzoko hainbat elkar-terekin bildu ziren, batez ere, kultur eta kirolarloko elkarrekin. Helburua bera zen kasu horretan ere, egoera zein zen jakitea, alegia.

Behin guztiekin hitz eginda, beharrak zerrendatu zituzten. Diagnostikoa eginda, atzeman zituzten behar nagusiak hauek izan ziren: eskola errefortzua egitea, eskola orduz kanpoko jarduerak zabaltzea, gazteentzako jarduerak bultzatzea, familien trebakuntza sustatzea, guraso elkartei laguntza ematea eta kanpoko zerbitzuen eta ikastetxeen arteko koordinazioa hobetzea.

Hori guztia egiteko hainbat baliabide eskuratu zituzten: dirutan, 420.000 euro. Erdia, Generalitateko Hezkuntza Departamentuak emanda, eta beste erdia Mataró-ko udaletxeak emanda. Eta

pertsonen zegoenez, katalanera mugitzeko teknikaria, hezkuntza teknikaria, guraso elkartearen dinamizatzailea eta eskolazte laguntzarako teknikaria zituzten lan hori egiteko.

Plana aurrera eramateko, herriko elkarrekin elkarlanean, hainbat jarduera egiten dituzte, 45 zehazki, modu honetan sailkatuta: udako hilabeteko hizkuntza ikastaro trinkoak, Bigarren Hezkuntzako hizkuntza tailerrak, eskolazte-laguntzak, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako eskola errefortzua, liburutegiko laguntza, Lehen Hezkuntzako ikasteko gelak, 16-18 urte bitarteko iritsi berriak diren gazteentzako harrera proiektua, familien trebakuntza (ikastaroak, tailerrak...), familia-gidatzaile proiektuak, guraso elkartei laguntza, jolastoki iri-kiak, gazte gidatzaileak, partekatutako eskola orduz kanpoko jarduerak (dan-




**Pepa LLOBET**  
MATAROKO UDAL TEKNIKARIA

tza...), arabiar eta amazig eskolak, eta musika eta antzerki jarduerak.

Eta, azkena, ebaluazio plana egitea da. Lau azpimultzotan sailkatzen dute ebaluazioa, edo beste era batera esan-

## JENDARTE ETA INSTITUZIONAL SAREA



# Mataroko esperientzia



**Juliana BACARDIT**

LIC - KATALANEAN MURGILTZEKO AHOHKULARIA

da, lau dira ebaluatzeko alderdiak: zein diren planaren onuradunak, helburuak bete ote diren, baliabideen egokitzapena eta antolakuntzaren egokitzapena. Ebaluazioa egiten dutenak, parte-hartzaileak, erakunde antolatzaileak eta planaren kudeatzaileak dira eta biltzen dituzten datuak, berriz, parte-hartzaile kopurua eta horien ezaugarriak, eta esku hartu duten eragileen balorazioak. Ebaluazioan kontuan hartzen dituzten alderdi garrantzitsuenak, hauek dira: sare sozialaren sorrera dinamika kontuan hartzen dute eta baita zerbitzuen eta administrazioaren arteko elkarlana ere. Elkarteen mundua planean nola sartzan ari den aztertzen dute, ikasleentzako hezkuntza osagarria egokia ote den, familiei eskaintzen zaien babesaren nolakoa den eta nahikoa ote den, guraso elkarteak nola sentitzen diren eta, azkenik, garrantzitsuenak, hori baita Ingurune Sozialera Egokitzeko Hezkuntza Planaren helburu nagusia, hizkuntzaren erabilera sozialean aurrerapausorik izan ote den.

Udalak, herriko elkarteekin elkarlanean egiten dituen 45 ekintzekin, honelako ebaluazio fitxa bat osatzen du. Hemen duzue adibide bat.

## EBALUAZIO FITXA

<b>Gaia</b>	Familien harrera.
<b>Programa</b>	Matrikulazio prozesuan laguntzea.
<b>Izenburua</b>	Etorri berriak diren familiei matrikulazio prozesuak irauten duen bitartean aholkularitza eta harrera eskaintzea.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etorri berriak diren familiei euren seme-alaben matrikulazio prozesuan harrera eta aholkularitza egokia eskaintzea.</li> <li>- Ikasleari eta haren familiari aurrematrikulaziotik eskolaren esleipena egin arte laguntzea.</li> <li>- Kataluniako hezkuntza sistemari eta herriko ikastetxeei buruzko informazioa eskaintzea.</li> <li>- Aholkularitza Pedagogikorako Taldearekin batera ikasle horrek Heziketa Behar Bereziak dituen edo ez erabakitzea.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b>	<p>Ikasleei eta haien familiei, eskola esleitzen den bitartean laguntza eta orientazioa eskaintzeko profesional bat alboan izateko aukera ematea.</p> <p>Profesional horrek beharrezkoak diren gauza guztietarako orientazioa eskainiko du: paperak, bitartekaritza, Aholkularitza Pedagogikorako Taldearekin edo esku hartzen duten beste zerbitzu batzuekin harremana...</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p>Familia etorri berriak.</p> <p>Eskolatzeko udal bulegoetara gerturatu diren eta zerbitzu horren beharra duten familia guztiak.</p>
<b>Tokia</b>	Eskolatzeko udal bulegoa. Eskolatzeko udal institutua. Laguntza: Mataroko ikastetxe guztietara.
<b>Indarguneak</b>	Matrikulazio prozesuak irauten duen bitartean etorri berriak diren familiei laguntza eskain die-




**Magda ROMAN**

MATARO ESKUALDEKO HEZKUNTZA ZUZENDARIA




	<p>zaiekeen profesionala izatea alderdi positiboa da, herriko zerbitzuen arteko lokailu bihurtzen delako (eskola, harrera zerbitzua, bitartekaritza...).</p> <p>Familiak lagunduta sentitzen dira, behar garrantzitsuenak betetzen direlako: bitartekaritza zerbitzua erabiltzea, adibidez, edo herri berria ezagutzeko jakin beharrekoak jakiten dituztelako (baliabideen gaineko informazioa, zerbitzuak...).</p>
<b>Ahulguneak</b>	<p>Denboraldi zehatz batzuetan lan horrek zerbitzuko profesionalen lanordu asko hartzen ditu, eta horrelakoetan, laguntza zerbitzua matrikulazio prozesua arrakastatsua izan dadin laguntza beharrezko duten familietara mugatzen da.</p> <p>Arreta Pedagogikorako Taldearekin eta Hezkuntza Udal Institutuko teknikariarekin egiten diren hezkuntza beharren balorazioak, informatiboak baino, erabakigarriagoak izan behar dute.</p>
<b>Jarraipena</b>	<p>Datorren ikasturtean familia etorri berriei zerbitzua eskaintzea erabaki da.</p>

Gustura joaten al zara errefortzu klasetara?  
Lehen Hezkuntzako ikasleak



Baliagarriak al dira errefortzu klaseak?  
Bigarren Hezkuntzako ikasleak




# carles font

## *ELKARRIZKETA*

Psikomotrizista. Eskolako irakaslea. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

// Lasaitasun eta segurtasun fisikoa eta afektiboa ematen duen espazioa eskaintzen badugu, haurrak diren eran azalduko dira //





carles  
font

E

// Helduarentzat, iraunkortasuna, egotea da, haurrak heldulekua izan dezan, aingura baten antzera jokatzeko dugu. Izan ere, psikomotrizitate gelan segurtasunik sortuko ez bagenu, hartutako lehen kolpearekin haurrek agian ez lukete berriro etorri nahiko eta, praktikak, ez lituzke emaitza onak emango

//

Eskolako irakaslea da Carles Font. Soin hezkuntza da haren espezialitatea eta duela 25 urte murgildu zen psikomotrizitatearen munduan. Bartzelonako Psikomotrizitate Eskolako prestatzaile taldeko kide izan zen eta Gran Canariako Unibertsitatean eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan gradundokoak zuzendu izan ditu. Gaur egun, eskola bateko irakaslea izateaz gain, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, *Garapen Psikomotorea* ikasgaia ematen du. Irakasleen prestakuntzan psikomotrizitateak dagokion lekua izatea da bere eguneroko borroka.

Hik Hasik azaroan antolatu zituen *"Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: Pedagogia koherente baten bila"* izeneko psikomotrizitateari buruzko jardunaldietan hartu zuen parte Font-ek eta praktika horren garrantzia azpimarratu zuen. Segurtasuna eta errespetua psikomotrizitate gelaren oinarritzeko osagaiak dira, eta horiek baldin badaude, baretasun psikikoa egongo da, haurrak seguru sentituko dira, plazerra sentituko dute eta diren eran azalduko dira helduaren aurrean. Haurrak dira gelako protagonista, baina saioa gidatzea helduaren egitekoa da; egoerak manipulatzeko bideak eskainiko ditu, eta interesatzen ez zaizkion bideak itxiko ditu haurrek aurrera egin dezaten. Horrekin batera, umorearen garrantzia azpimarratzen du Fontek, gelan klima berezia sortzen duelako.



**Has gaitezen galdera orokor batekin. Zergatik du psikomotrizitateak hainbesteko garrantzia?**

Psikomotrizitateak haurren garapen prozesua ahalbidetzen du eta helduoi, horretan esku hartzen uzten digu. Horregatik funtzionatzen du, eta horregatik da garrantzitsua. Psikomotrizitate praktikan gauza asko ikusten dira, eta guk, behatzaile pribilegiatu gisa, haurrak jolasten ikus ditzakegu, gauzak nola egin behar dituzten erabakitzen ikus ditzakegu. Baina psikomotrizitate praktika ez da aplikatzen erraza, parametro batzuk behar ditu eta erreferentzia markoa ongi zehaztu behar da.

**Beharrezkoak al dira eskoletan haurrei, askatasunez, nolakoak diren adierazteko aukera emango dieten segurtasun espazioak?**

Bai. Guk, lasaitasun eta segurtasun fisikoa eta afektiboa ematen duen espazioa eskaintzen badugu, haurrak diren eran azalduko dira. Segurtasun fisikorik eta afektiborik ez badago, askoz ere gutxiago erakutsiko dute. Psikomotrizitate praktikak haurrei euren garapenean laguntzeko balio du eta garapen horretan zer mementotan dauden ikusteko, baina, horretarako, segurtasun fisikoa eta segurtasun afektiboa ezinbestekoak dira. Segurtasun fisikori dagokionez, inork ezin du minik hartu eta beraz, segurua den gela bat izan behar du. Segurtasun afektiboa, berriz, haurri den eran azaltzeko aukera emango dion espazioa eskainiko diogula esan nahi du eta ez dugula epaituko, onartu egingo dugula. Hori esatea gauza erraza da, baina egitea ez

da hain erraza, besteak beste, helduak haurrak egoki behatzeko eta haien mugimenduen espresibitatea ulertzeko begirada trebatu behar duelako. Jar-duera horretan oinarritzko printzipio etikoa dago: haurrengandik ateratzen dena errespetatzea eta onartzea. Askotan esaten da egiten, egoten eta izaten jakin behar dela eta psikomotrizistak alderantziz egiten du; lehenik, izaten daki, gero egoten daki eta azkenik, egiten baldin badaki... ederki. Izaten jakiteak prestakuntza ona izatea esan nahi du, eta haurrekin argiak izateko, gure indarguneak eta ahulguneak ezagutzea. Izaten jakiteak, haurren segurtasunarekin lotura zuzena du. Eta, egoten jakitea, teknikoagoa da, gelan egon behar duzu haurrak inbaditu gabe eta inbaditua izan gabe, laguntzeko moduan egon behar duzu baina ez haien esanetara. Enpatiko egon behar duzu eta ez sinpatiko. Batez ere, haurrak errespetatu behar ditugu, eta haurrek errespetua diegula sentitzen badute, gure esku hartzea egokiena ez izan arren, onartu egingo gaituzte. Saioa ongi bideratzen badugu, segurtasuna sentituko dute eta gainerako haurren plazerra baltsamo baten antzekoa izango da zailtasunak dituztenentzat. Haur bat, soilik, segurtasun oinarri bat badu

jarriko da ikasteko arriskuan. Bestela ez du arriskurik hartuko, beldurra sentituko duelako.

**Beraz, psikomotrizistek garapen prozesua laguntzeko kontuan izan behar duten lehen gauza, errespetua da.**

Bai. Eta, denboraren eta iraunkortasunaren gainean dugun ikuskerarekin jokatu behar dugu. Iraunkortasuna, baretasun psikikoa eta plazerraren printzipioa loturik doaz. Psikomotrizitate gelan helduaren iraunkortasuna behar-beharrezkoa da. Hor topatzen dugu iraunkortasunaren printzipioa. Helduarentzat, iraunkortasuna, egotea da, haurrak heldulekua izan dezan, aingura baten antzera jokatzen dugu. Izan ere, psikomotrizitate gelan segurtasunik sortuko ez bagenu, hartutako lehen kolpearekin haurrek agian ez lukete berriro etorri nahiko eta, praktikak, ez lituzke emaitza onak emango. Baina haurrei diren eran azaltzeko aukera ematen dien segurtasun espazioa sortzen badugu, gauza asko ikusiko ditugu.

Psikomotrizistei mugimendu-ekin-tzaren plazerra irakurtzea interesatzen zaigu batez ere. Psikomotrizista baten-tzat mugimendurik eza, bere teknizita-

tearen eta izateko eraren ukazioa da. Arrazo gehiago sortzen digute haur hipotonikoek hipertonikoek baino. Mugitzen ez dena, nola mugitu pentsatu behar dugu, baina haur batek bere ahultasuna azaltzen duenean ez dugu porrot gisa hartu behar, horrek gela horretan segurtasun nahikoa dagoela esan nahi baitu. Egoten jakin behar dugu, ondoren egiten jakiteko, eta haurrei hor gaudela ulertarazi behar diegu eta behar duenean gerturatu egiten garela, laguntzeko.

**Nolakoa da zeuk diseinatutako psikomotrizitate saio bat?**

Sarrera erritual batekin hasten gara eta errituala deitzen diogu, saio guztietan finkoa den zati bat dagoelako. Zer-gatik? Horrek segurtasuna ematen duelako. Gainerakoa, aldatu egiten dut. Gela aurkezten dut, aurreko saio batzuk gogorarazten dizkiet eta zati horretan gertatuko denaz hitz egiten dut, edo saioaren amaieran egingo dudana iragartzen dut, ipuinen bat kontatuko dudala edo kantaren bat abestu... Izan ere, hezkuntza praktika, egitearen plazeretik pentsatzearen plazerrera doa eta helduak ibilbide horretan laguntzen dio haurrari. Sarrera erritualetan, aurrekoa gogorarazten duzu eta bigarren zati horretarako, pentsatzearen printzipiorako, prestatzen ari zara. Nire kasuan, haurrek, kuxinekin egindako harresia botatzen dute saioa hasteko, eta ondoren beste gauza batzuk egitera joaten dira. Haurrak elkarri eragiten doaz, libreki, baina gelan ezin dute nahi dutena nahi dutenean egin, hezkuntza praktika bat delako. Gela, kotatutako espazioa da, horren barnean, libreki mugitzen dira baina psikomotrizistak segurtasun markoa definitzen du. Horrela, hor seguru daudela eta diren eran azal daitezkeela adierazten diegu. Psikomotrizitate saioetan, baldintza horiek betetzen badira, haurrek ez dituzte gauzak guretzat egiten, haientzat egiten dituzte. Eta guk behatu egingo dugu, errepikapenak behatuko ditugu, bereziki, plazerraren errepikapenak, eta baita plazerrik eskaintzen ez duten



carles  
font



E

// Banuen, oihal  
handi bat hartu eta  
kapa handi baten  
antzera jartzen zuen  
haur bat, horma-  
barraren goiko aldera  
igotzen zen eta  
mundua han goitik  
begiratzen zuen tarte  
batez. Ondoren, behera  
jaisten zen eta  
jolasean jarraitzen  
zuen (...).  
Psikomotrizitateak hori  
egiten utzi behar  
diogula esaten digu

//

errepikapenak ere, eta ekintza espontaneoak ere behatuko ditugu. Hori guztia kontuan hartzen joango gara eta era batera edo bestera esku hartuko dugu. Haurrarentzat zailtasuna dakarren egoera bat ikusten badugu, gerturatu egingo gara eta esku hartuko dugu egoera ludikoak proposatuz.

#### Adibideren bat jarriko al zenuke?

Adibidez, orekarekin arazoak dituen haur baten kasuan, nik ez nuke harekin lan egingo oreka aurkitzea zaila den egoera batzuetan. Adibidez, oihalekin egoera ludikoa sortuz, agian, oihalekin arrastaka ibiltzea proposatuko diot. Zergatik? Badakidalako, teknikoki oihalekin arrastaka ibiltzeak, lurra desagertzen ez den eta finkoa den erreferentea denez, gorputzaren mugen irudia ematen duela, eta badakit ahulak diren haur horiek beren gorputzaren mugen sentsazio indartsua behar dutela horrek segurtasuna emango dielako. Ondoren, segurtasun horretatik abiatuta, beste pauso bat emateko moduan izango dira. Edo, kuxin batzuen gainean jarriko dut eta mugitu egingo dut, nire aurpegia haren aurpegiaren ondoan dudala. 15 zentimetroko altuera batetik erortzen utziko dut eta ahots lasaiarekin esango diot: "Eroriko zara, eroriko zara. Erori zara!" eta hark irribarre egingo du. Beraz, erorketa eta berraurkuntza lantzen ari naiz.

#### Eta, nola antolatzen duzu gela? Nolako da espazioa eta zer material erabiltzen duzu?

Gimnasio batean egiten dut lan, espazio zabalak gustuko ditudalako. Erdian, gauza askorekin bete daitekeen

espazio handi bat izaten dut beti eta hainbat gauza eraikitzeke balio duen material handia ere bai. Haur askok egiten dituzte dorre altuak, horien bidez haien burua errepresentatzeko. Garrantzitsua da ere txokoak izatea, paretek anguluak osatzen dituzten lekuek segurtasun handia eskaintzen dutelako eta bertan atseden hartzeko uneak egon daitezke, sormen uneak ere bai... Banuen, oihal handi bat hartu eta kapa handi baten antzera jartzen zuen haur bat, horma-barraren goiko aldera igotzen zen eta mundua han goitik begiratzen zuen tarte batez. Ondoren, behera jaisten zen eta jolasean jarraitzen zuen. Horren zergatiaren inguruan hausnartu nuen eta konturatu nintzen gelak segurtasuna eskaintzen zuela, haurrak lasai zeudela eta baretasun psikikoa zegoela. Kasu zehatz hori aztertzen badugu, badakigu, hiru-lau urterekin, mutilek batez ere, omnipotentzia jolasetara jolasten dutela, super-heroiak izatera, eta garrantzitsua zen haur horri saio bakoitzean bere omnipotentzia minutuak uztea. Psikomotrizitateak hori egiten utzi behar diogula esaten digu. Materialak esploratzen dituzte, saltoek eta erorketek ere garrantzia dute, plazerra aurkitzen dute, kooperazioa, proiektu komunak, materialekin jolastea, erakuntzaren bidez norbere burua erre-presentatzea...

#### Plazerra aipatu duzu. Zer garrantzi du plazerrak psikomotrizitatean?

Emozioa eta plazerra estuki loturik doaz eta haurrek plazerra bilatzen dute. Plazerraren printzipioa, psikismoaren printzipioari lotua doa eta haurren bizi-tzaren zati da. Haur jaioberriek barre egin dezaten saiatzen gara eta barre egiten dutenean, gu ongi sentitzen gara. Psikomotrizitate gelan ikusten dugu, gustura daudenean, euren gorputzak ere ongizatea adierazten duela, poza adierazten duela. Plazerrik ez bada, ez da garapenik, edo behintzat, garapen horretan zailtasunak izango dira. Eta plazerraren printzipioa helduaren presentziarekin lotuta doa, helduak ematen baitio haurrari nortasuna eta gorpu-

tzaren irudia. Helduek plazerra sortzen duten gauzak egiten dizkiete haurrei eta haurrek psikomotrizitate gelan, plazerra sortzen dieten gauzak egiten dituzte.

### **Eta plazerra sortzen duten jolasak etengabe errepikatzen dituzte...**

Psikomotrizistek gorputza banaezina den zerbaiten moduan ikusten dugu, ezin dira gorputza eta burua banatu, dena batera doa. Gorputzaren bidez, eta gorputzeko sentsazioen bidez, ni-a sortzen dugu, gorputz-eskema finkatzen dugu eta pertsona inteligentek egiten gara. Beraz, gorputzak jasotzen dituen sentsazio multzo horrek haurrak haztea eragiten du. Psikomotrizitate gelan, haurrek autonomia apur bat dute, haien ingurua manipula dezakete eta bizitzako lehen hilabeteetan helduekin, gurasoekin, egiten zituzten jolasak errepikatzen dituzte, diren hori finkatzeko. Psikomotrizitate gelan haurrek jolas horiek gogoratzen dituzte, haiek egiten dituzte, eta indarra hor dago. Praktikak, egiten ari den jolas ho-

rien aurreko jolasetara itzuli behar dugula esaten digu eta, beraz, jolasen garapen prozesuari buruzko ezagutza izan behar dugu.

Psikomotrizitate gelan haurrak behatzen ditugu, errepikapenak behatzen ditugu eta errepikapen horietan plazerra baldin badago, lasai gaude, baina plazerrik ez badago, haur horri plazerra sor dakioketen egoerak pentsatzen hasten gara. Psikomotrizitate gelan errepikapen jolasak egiteko espazioa eskainiz gero, plazerra finkatzen da eta haurren garapena bultzatzen da. Bestela, zailtasunak daudela ikus dezakegu eta horiek oso larriak ez badira, haurraren garapenean lagun dezakegu. Psikomotrizistok garbi izan behar dugu nola esku hartu plazerra finkatzeko, eta horri irteera emateko. Hala ere, batzuetan, plazerra gehiegizkoa baldin bada, hori zapuztu behar dugu, gainditutako frustrazioak ikas-kuntza sortzen duelako.

### **Nolako jolasak egiten dira, orohar, psikomotrizitate gelan?**

Segurtasun sakoneko jolasak izaten dira horietako asko. Jolas horietan haurrek euren gorputz osotasunaren eta galeraren eta berraurkikuntzaren arteko dialektika esperimintatzen dute. Eta, berraurkitzen direnean, plazer handia lortzen dute. Jolas horiek, erortzea, birak ematea, irristatzea, balantzaka aritzea... ez dira besterik gabe gertatzen, lehen haurtzaroan euren gurasoen besoetan egin dituztenak dira. Galeraren eta berraurkikuntzaren sentsazioak plazer handia eskaintzen die eta, era horretan, gurasoekin aurrez egindako jolasak bergogoratzen dituzte. Haur bat hartu eta, une batez besoak askatuz airera botatzen badugu, berriro hartzen dugunean aurpegira begiratzen diogu eta barre egiten badu, errepikatu egiten dugu. Haurrak barre egiten du, une batez erori egingo zela edo kolperen bat hartuko zuela pentsatu duelako eta horrela izan ez dela ikusi duelako. Galeraren ondoren, berraurkikuntza horrek plazerra sortzen dio. Une horretako herstura ez da hor gertatzen, helduen ekintzek berehala kon-





**Psikomotrizitatearen indarra hori da: egiazkoa balitz bezala jolas dezaket (...). Haurrak plazerra sentitzen du harrapatu ez dudala ikusten duenean, inork irentsi ez duela eta eta hor jarraitzen duela ikusten duenean. Saio bakoitzean gauza bera eskatzen dit, batzuetan egiten dugu eta beste batzuetan ez, eta ezezkoa arazorik gabe onartzen du...**



pentsatzen dutelako. Amak, adibidez, herstura hori baretzen du haurrari nor-tasuna ematen diolako, izena ematen diolako eta oso polita dela esaten diolako. Gorputz irudia sortzen dio eta plazerrez ukitzen du, eta haurrak plazerra sentitzen badu, helduak ere plazerra sentituko du.

Segurtasun sakoneko jolasetan, gorputzaren osotasuna "arriskuan" jartzen da eta galdu ez garela ikusten dugunean, plazerra sentitzen dugu. Erortzen uztea da horietako bat; lau-bost urterekin, esaterako, salto egiten dute. Erorketa da, galdu egiten dira eta behean berraurkitzen dira. Eta ni, salto egin duen haurrarengana joan naiteke eta esan: "Osorik zaude, ez duzu bidean belarririk galdu", eta haiek gustura geratzen dira egindakoarekin. Etengabe birak ematea ere jolas horietan sartzen da, guztiok egin dugu hori gero zutik mantentzeko gai ote ginen ikusteko, eta errepikatu egiten genuen. Balantzaka aritzea, irrizatzea, altuera batetik pasatzea... jolas horien multzoan sartzen dira.

**Txikitan, irenste-jolasak ere**

**garrantzitsuak dira.**

Bai. Adibidez, haurrek sarritan eskatzen dituzte otsoarekin zerikusia duten jolasak eta kultura guztietan daude pertsonak jaten dituzten animaliei buruzko ipuinak. Baina, haurrek, ez dute inork irensterik nahi, errepresentazioa egin nahi dute soilik, horrek ematen baitie plazerra, inork haiek ez jatea.

Badut gelan haur bat, niregana etorri eta munstroarena egiteko eskatzen didana. Hori egiten duenean, jarraitzeko eskatzen ari zait eta jarraitua izateak heldua gertu baina urrun duzula esan nahi du; hura ikusteko nahikoa gertu eta hark zu ez harrapatzeko nahikoa urrun. Hiru metrora jartzeko esaten diot eta hiru zenbatzean bere atzetik korrika aterako naizela. "Aaaaah!" oihu egiten dut eta haurra korrika ateratzen da, gelari bira ematen dio eta ni ez naiz mugitu ere egiten. Haur hori, inkontzienteki bada ere, helduarekin banantze eta hurbiltze prozesua lantzen ari da munstro horren bidez. Era horretan, haurrari esperimintatzeko aukera ematen diozu eta esperimintazio horrek, eta ondoren zuregana itzultzeak, plazerra ematen dio, harrapatu ez du-



zula pentsatzen duelako. Jolasten ari da. Nik ez diot ero baten moduan oihuka jarraitzen, bestela egiazkoa izango litzatekeelako. Ni hezitzaile paperean sartzen naiz eta hor geratzen naiz. Psikomotrizitatearen indarra hori da: egiazkoa balitz bezala jolas dezaket, hori esperimenta dezaket, baina ez da ezer gertatzen. Haurrak plazerra sentitzen du harrapatu ez dudala ikusten duenean, inork irentsi ez duela eta eta hor jarraitzen duela ikusten duenean. Saio bakoitzean gauza bera eskatzen diit, batzuetan egiten dugu eta beste batzuetan ez, eta ezezkoa arazorik gabe onartzen du “bihar” bat badagoela eta hurrengo batean horretara jolastuko dugula badakielako. Haurrari horrela adierazten uztea, konfiantza ematea da. Ez da epaitua sentitzen. Errespetua dago.

### **Heldua gertu eta urrun izateko beharra agertzen da, beraz.**

Bai. Haurrak helduari aurre egiteko gogoa izaten du, batzuek helduarekin borroka egin nahi dute, eta guk helduarekiko agresibitate hori onartzen dugu. Adibidez, saio hasieran botako duten kuxin harresiaren atzean jar zaitezke, eta baimena ematen diezu zu bertan zaudela harresia botatzeko. Baina, nik, harresiak egiten eta egiten aritu beharrean, azkenean koltxoneta bat erosi nuen eta koltxoneta eusten dudana bertan, nire kontra etortzen dira baina ez naute ukitzen, legea zorrotza delako: ezin da minik egin. “Ea arrastaka eramaten nauzuen, baina nik ez zaituztet horretarako prest ikusten”, esaten diet. Orduan hamar bat etortzen dira, guztiak dutelako heldua alde batera uzteko ikasgai hori zintzilik; batzuk hori lantzen ari dira, eta beste batzuek gaintutua izan arren, gogoratzea gus-tuko dute. Hori bizpahiru aldiz egitea nahikoa da, gero beste zerbaitea jolastuko dute. Heldua alderatzeak edo baztertzeak, baretasun fisikoa sortzen die.

### **Baretasun psikikoaren kontzeptua aipatzen duzu. Azalduko al**

### **zeniguke zer den?**

Kontzeptu oso garrantzitsua da, eta esan nahi du, haurrak elkarrekintzan ari daitezkeen segurtasun fisikodun eta afektibodun espazioa diseinatzea helduaren ardura dela. Baretasun psikikoa gure ardura da eta ez dago errendimendu presiorik, ezta lehiarik ere. Onarpena dago, eta, era horretan, haurrak diren eran agertuko dira; haurrek euren garapenaren alderdiak erakutsiko dituzte. Izan ere, baretasun psikikoaren kontzeptua haurren ekintzekiko errespetu osoarekin loturik doa. Eta baretasun psikikoa ez du esan nahi mugimenduaren baretasuna.

Baretasun psikikoa lortzeko espazioak berebiziko garrantzia du. Espazioa psikomotrizistak diseinatzen du, baita materialak eta haurrak gelara nola sartuko diren eta sarrera erritualak nola izango den ere.

Bestalde, haurren denbora errespetatu behar da, ez dugu presarik izan behar. Denborarekin lan egiteak esan nahi du, desio bat dugunetik hori betetzen den arte denbora tarte bat dagoela. Denbora hori profesionalak ezartzen du eta hori beharrezkoa da gero eta haur gehiagok lortzen dutelako nahi duten guztia nahi duten mementoan. Gaurko gizarteak hori sortzen du. Beharrezkoa da mementoko desioa zapuztea gero lortzeko, zeren frustrazio txiki horrek haurra beste frustrazio batzuetarako prestatuko du eta frustrazioek, gaintutzen direnean ikaskuntza sortzen dute. Mugak jarri behar dira, frustrazioa sortu behar da.

### **Beraz, legeak eta arauak beharrezkoak dira.**

Bai. Legea beharrezkoa da gelan. Psikomotrizistentzat legea hau da: hemen ezin da minik hartu eta ezin da minik egin. Legeak mugak jartzen laguntzen du, segurtasun markoa da, erreferentzia markoa. “Hemen minik ezin da egin” esateak, segurtasun fisikoa eta segurtasun afektiboa indartzen ditu. Eta min egiten duena, bankuan esertzen da hiru minutuz, hark eta gainerakoek lege bat dagoela eta bertan dagoen hel-

dua euren segurtasunaren zaintzailea dela uler dezaten. Mugarik gabe ez dago segurtasunik.

### **Eskolan mota horretako espazioak, psikomotrizitate gelak egotea beharrezkoa da. Bertako ezaugarriak beste gune batzuetara eraman al daitezke?**

Hezkuntzaren protagonista haurra da, baina guk lan handia egin behar dugu. Koherentzia beharrezkoa da eta ezin da psikomotrizitate praktika leku guztietan egin. Badira psikomotrizitate abiatuta beste guztia globalizatzen duten eskolak, ez da arazorik, baina maisu-maistrak hezkuntzaren aurrean nola kokatzen garen ikusi behar dugu. Psikomotrizisten trebakuntza zaila eta luzea da baina haur bat ulertzeko eta, gorputz lengoia ulertzeko gaitasuna betirako eta une guztietarako balio du. Zailtasunak atzematen laguntzen du, psikomotrizitate praktika hezitzailea eta prebentiboa baita.

**Haur batzuekin etengabe zenbait eskaera errepikatzen direnean zer egin behar den galdetuta, adibidea jarri du Carles Font-ek. Bazen, Carlesi eta lankideari, otsoarena egitea etengabe eskatzen zien haur talde bat, eta egun batean, gelako haurrei esan zieten egun hartan ez zutela haurrak jateko gogorik, sardinak baizik. Orduan, koltxoneta batzuekin sardina lata bat egin zuten; oiha-lak erabili zituzten olio egiteko, eta haurrak estu-estu etzanda jarri zituzten lataren barnean. Haur batek esan zuen ez zuela jolastuko, bera ez zela sardina bat! Eta haur horrentzat une hartan amaitu ziren irenste-jolasak. Izan ere, Carlesek irribarrez dioen moduan, gauza bat da, haurra izanik otsoak jatea, eta beste gauza bat, latako sardina bat izatea.**

## Gaur egungo BeHlak Hezkuntzaz hasnartzen

Gorka Velasco, Santurtziko Kantauri Institutuko Batxilergoko marrazketa, plastika eta informatika irakaslea da eta "Gaur egungo BeHlak" izeneko liburua kaleratu du berriki. Hezkuntzari begirada kritikoa bota dio umoreak zipriztindutako bineten bidez eta Bigarren Hezkuntzako Institutuak, BeHlekin alderatu ditu. Hausnarketa sakona ezkututzen da irudi eta esaldi bakoitzaren atzean. Batzuk aukeratu eta horietan oinarrituta egin dizkiogu galderak; hark jarritako puntuekin botarazi diogu bertsoa.

**Nola hezi, hesitu gabe? Nola hezi, nola hesitu, mugatu gabe? Heztea hesiak jartzea al da?**

Hezkuntzak zenbait gauza mugatzen edo zehazten ditu, ezinbestean. Guk eremu bat markatzen dugu eta, askotan, horren barruan egotera behartuta gaude, baina helburua izango litzateke, atea irekita ere, eremu horren barruan geratzen dena hark nahi duelako geratzea, interesgarria iruditzen zaiolako. Eta alde egin nahi duenak, alde egin dezala. Nire helburua jakin-mina piztea eta begiak irekitzea da, baliabide batzuk ematea, horiekin beste esparru batzuetara joateko aukera izan dezaten.

**BeHlak onena emateko, kaikuenak ezin baztertu.** Esne gehien ematen

**dutenen maila jarraitzen al da?**

Hori aurrera begira planteatzen dut. Hainbat erritmotara egokitzen goazela ikusten dut. Guk behar batzuk ditugu, baina ikasleek, familiekin eta gizarteekin ere bai. Ikasleak askotariko helburuekin datoz: egotera, ezagutza jasotzera, titulua lortzera... Baina gaitasun zehatz batzuk ez dituztenak ezin ditugu baztertu; hobekien moldatzen diren esparruetara bideratu behar ditugu. Titulua ez da helbururik garrantzitsuena, ikasleei beste baliabide batzuk eskaintzen eta aniztasuna lantzen ere jakin behar dugu.

**Aldiroko ikuskizuna: gurassik park (edozeren gainetik umearen egoerak itsututa).** Ikasleek baino lan gehiago ematen al dute

**gurasoek?**

Batzuetan bai. Askotan seme-alabek egindako edozer gauza justifikatzeko prest daude, agian, hori, ikaslearentzat onena ez dela kontuan hartu gabe. Gaztetxoak babes handia sentitzen duenean eta nahi duena egin dezakeela ikusten duenean, akabo. Eta, gurasoek, etxean eta eskolan zuzendu beharreko jarrera batzuk badirela ikusi beharrean, haien kontrako eraso gisa ikusten dute guk esandakoa.

**BeHlari erabakiak goitik behera: presaka, bultzaka eta korrika.** BeHlak ere estresak jota al dabilta?

Hezkuntza Sailaren antolaketak korrika eta behar den bezala antolatu gabe aritzea dakar, maiz. Urtero gauza





berdintsuak gertatzen dira eta aurreikuspen falta dagoela dirudi. Nik uste dut gauzak hobeto antola daitezkeela.

**Behlak euskaraz badu zentzurik (eta etorkizunik). Batzuk ez dira ohartuko.** Behi euskaldun batenak ez ote dira memoria hutsean geratuko!

Lan handia dugu oraindik leku guztietan, baina leku askotan kalitatezko eskola D ereduarekin lotzea lortu da. Gauzak astiro doaz baina aukerak badaude eta euskarak etorkizuna du, jakina!

**Zamak garraiatzeko tresneria eguneratu beharra. Erronka berria aspalditik datorkigu.** Zaharkituta gaude, akaso? Idiek traktoreei lekua egiteko garaia al da?

Aurrera begiratu behar dugu beti eta une bakoitzean zer aldatu behar den, zer erosi behar den... ikusi behar dugu. Normalean, berrikuntza teknologiarekin lotzen dugu, baina leku askotan dauden eraikinen eredua beste garai batekoa da eta espazioak egokitzera ere, beharrezkoa da, behar berriei modu egokian erantzuteko. Idiak jaientarako eta garai bateko erlikia gisa gertzen ote diren, edo zenbait gauza egiteko tresnarik egokiena delako oraindik ere aitzurra erabili behar ote dugun aztertu beharko genuke. Betiko tresnen eta tresna berrien erabilera uztartu behar dugu, une bakoitzean egokiena hautatuz.

**Haurre – ikuspena abeltzainarena; baina bizkarra zainduz.** Adarkadaren beldur al da, bada, abeltzaina?

Irakasleoi leku guztietatik zaplastekoak jasotzen ditugula iruditzen zaigu, batzuetan. Azalpen asko eman behar izaten dugu maiz, eta ez dugu babes handirik sentitzen.



**BeHlaz trufa egiteko zain daudenak ge-hienak. Zer egin du bada, BeHlak?**

Gure lana ordaindua dagoenez, askotan ez da eskertu ere egiten, baina akatsak daudenean, gure kontra jotzen dute eta kritikatu egiten gaituzte. Porrotarekin dugun lotura gehiago ikusten da arrakastarekin dugun lotura baino; haien bidea jarraitzen dutenengan eraginik ez dugula dirudi, baina porrotak gure erantzukizun gisa agertzen dira.

**Espero dena izan ez arren BeHlen inguruan badago etorkizun borobila, apurrez egina bada ere. Eskerrak itxaropena ez den galtzen!**

Ez. Itxaropena ez da galtzen. Horrek mugitzen gaitu askotan. Batzuetan ikasle ohi batekin topatu, eta zertan dabilen ikusten duzunean, poza ematen dizu. Apur horiekin eusten zaie itxaropenari eta ilusioari.

**BeHla azalean geratzen bada, larrutik ordaintzen du. Gehiegi exigitzen al zaio?**

Arrakasta neurtzeko hainbat modu daude, eta ez zaio soilik ikusten denari erreparatu behar, barrutik egiten dena garrantzitsuagoa baita askotan, ikusten ez den arren. Ezaguerak transmititzen ditugunean, gauza gehiago transmititzen saiatzen gara.

**Ordezkoena: auto-eskola. Batetik bestera eta kotxea ezinbestekoa. Noiz utziko diote nomada izateari?**

Pufff! Ez dut erantzunik, agian egunen batean denok elkartzeko bagara eta "Aski da!" esaten badugu...

**BeHln baino gehiagotan plazarik plaza ibili behar. Baina urduriago plazarik gabe. Irakaslea toreroa al da abeltzaina izateaz gain?**

Esleipen saioetara goaz ea plaza ona hartzen dugun eta kaskarrak iristen zaizkigu sarritan, baina hori baino okerragoa da plazarik gabe geratzea. Hori, gure lanbidearen egoeraren adierazle da, izan ere, edozein epresatan 14 ur-

tez arituz gero, langile finkoak izango ginatke. Guk ikasturteak iraun bitarteko lotura baino ez dugu, gero, agian, institutu berera itzultzeko aukera izan dezakegu, baina ezegonkortasuna, zantzua eta urduritasuna hor daude beti. Toreroak izatea egokitzen zaigu, baina guretzat ez dago goi-mailako plazarik.

**BeHlak zirikatzen du jakinmina. Erdibidean geratuta, mina, jakina. Porrotaren mina arintzerik izango al da?**

Zure helburuetako bat lortzen ez duzula ikustean mina sentitzen duzu, eta kontuan izan behar dugu jakin-mina beharrezkoa dela bizitzan, etengabe ikasten ari garelako.

**BeHl batek baino gehiago dirudi Gobernu Kanpoko Erakundea, gobernatzeko modurik ez baitago. BeHla da, berez, gobernatzeko zaila, ala abeltzainak ez du asmatzen?**


Behiak zailak dira, aitzak dira eta egunero sortzen dira arazo eta erronka berriak. Ezin dugu lo hartu. Zuzendaria, beste lankide bat izaten da askotan, haren prestakuntza ez da lan hori egitera bideratu eta kanpotik zein barrutik hainbat arazo heltzen zaizkio. Erantzukizun handia du eta ez ditu behar dituen baliabide guztiak.

**BeHlen ordutegia luzatuta, lantokiak, jantokiak bilakatuta. Larrean etzanda egoteko denbora, non geratu da?**

Gizarteak haurtzain ikusten gaitu askotan eta ez gaitu ematen dugunaren arabera epaitzen, sortzen zaizkion arazoak arabera baizik. Guraso askoren kezka da haurrekin zer egin, eta nik esaten dut azpiegitura baliatuta, noiz-bait, etxera afalduta bidaliko ditugula.

**BeHlak urtetan ibili eta ibili zIBILizatu arte. Eta zer da, zibilizatzea?**

Egokitzen, egoten, harremanak izaten... jakin behar da. Hainbat eremutara moldatzen jakin behar da eta



ikasleei hori erakutsi behar diegu.

**BeHlaren egoera? Ardia adierazle latza. Zer adierazten du, ardiak?**

Beti erronkei aurre egiten aritzen gara. Beste garai batzuetan, dena zehaztuagoa zegoen, nik ikasi nuen garaian dena zehatzagoa zen. Baina orain, denetik dugunez, eta hainbat aukerari erantzun behar diegunez, erronka mordoa dugu. Gainera, balibideak urriak baldin badira, arkitektura zahartuta geratu bada... Hausnarketa beharrezkoa da aurrera begira egin behar diren aldaketak zein diren jakiteko.

**Ez dago pertz nahikorik ematen duen gutzia biltzeko. Hi haiz hi, pertxenta! Asko eskaintzen al du BeHlak?**

Bai. Hainbat erantzun eskaintzen ditu, askotariko pertsonak jasotzen ditugulako. BeHlaren aldeko apustua egiten dugu, eta trukean asko ematen du. BeHlaren alde egin behar da eta dituen arazoak ukatu gabe, aurrera egin behar dugu. Jakina, noizean behin, hitz gozoak behar dira aurrera jarraitzeko.

**BeHlak ez du ereindako uzta hartzen ez badu etorkizunarekin uztartzen. Epe laburrean, porrotak lotzen zaizkio. Uztarriak nahikoa eusten al du?**

Egiten ari zaren horrek etorkizuneari etekina emango dizula ikusteko gai zarenean, egunero egiten duzunari zentzua ikusten diozu •

# Orue eskola

Hezkuntzako profesionaleri  
zuzendutako ikastaroak

## HAUR HEZKUNTZARAKO PROPOSAMENAK:

**Importancia del movimiento y  
Psicomotricidad (0 – 3 años)**

Fechas: 20/01/09 - 03/02/09

**Lan sensoriala lehenengo urteetan**

Datak: 09/03/03 - 09/03/17

**Umekin lan egiteko proposamenak**

Datak: 09/02/10 - 09/02/24

**Haur hezkuntzan gurasoekin lanean**

Datak: 09/01/29 - 09/02/26

**Clown tailerra: haur hezkuntzako  
tresna hezitzailearentzat**

Datak: 09/02/05, 09/02/06, 09/02/12, 09/02/13

**Abestiak eta jolasak euskeraz eta  
ingelesez**

Datak: 09/02/04 - 09/03/04

## HEZKUNTZA PROIEKTUAK:

**Redefinición del proyecto curricular de  
centro, en clave de competencias**

Fechas: 16/01/09 - 13/02/09

**Ikastetxearen curriculum proiektua  
oinarrizko kompetentzien arabera  
egituratzea**

Datak: 09/02/20 - 09/03/27

**Haur Hezkuntzan kompetentzia  
orokorrak eta balioak programatzeko  
proposamena**

Datak: 09/03/03 - 09/03/31



## IKT:

**Blogak eta eskola**

Datak: 09/02/02 - 09/03/02



[www.orue.biz/eskola](http://www.orue.biz/eskola)

ORUE ESKOLA  
San Migel de Idueta auzoa 7/b  
48310 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)  
Tel. 946 300 058  
Fax: 946 308 199

Diruz lagundutako ikastaroak: Dohainik



## Hezkidetzaz IKTen eskutik: Blogeatu nahi?



Irene GONZALEZ MENDIZABAL

BO6 BERRITZEGUNEKO BIGARREN HEZKUNTZAKO  
AHOLKULARIA (GIZARTE-HIZKUNTZA EREMUA). ZUBIAK  
ERAKITZEN HEZKIDETZA TALDEKO KIDEA.

Hezkidetzaz lantzeko tresna ego-kiak izan daitezke blogak eta beste tresna batzuen antzera, emakumeen eta teknologiaren artean dagoen tar-tea apurtzeko balio lezakete Irene Gonzalezek artikulua honetan dioenez. Emakumeen mundua isiltsa- netik ateratzeko aukera ematen dute blogak eta neskak hitza hartzera bultzatzeko, horiek baliatzearen aldekoa da Gonzalez.

Blogak, blogosfera, ikasblogak... batzuentzat hitz arraroak baino ez dira oraindik. Beste batzuentzat, berriz, bloga kontzeptua guztiz ezaguna izan- go da jadanik; agian lanean ere erabil- tzen ari diren tresna da.

Baina, zer da bloga? Sarritan egune- ratzen den interneteko web orri inte- raktiboa da, dohainik lortu, sortu zein kudeatzeko oso erraza dena.

Web 2.0 teknologiari jarraituz, blo- gak, wikiak eta beste hainbat tresna di-

gital agertu dira azken urteotan. Horiek guztiek komunean daukatena hau da: interneteko web orriak direla (ezaugarri desberdinekin), edonork dohainik sortu, erabili eta parteka di- tzakeenak.

Web arruntetan jantzita zegoen egi- le batek interneteko serbidorea ba- zuen, sarean edukiak ipini zitzakeen beste guztiok irakurtzeko. Web 2.0 munduan, berriz, guztiok izan gaitzake egile, eta interneten zer eduki ipini era- baki dezakegu, elkarreragin bizia eta aberatsa sortuz besteen iritziak jasoko ditugula jakinda. Web dinamikoaren aurrean gaude.

### Baina, zer dela eta, bloga eta hez- kidetzaz?

Irakaskuntzaren edozein eremutan blogaren erabilera oso interesgarria izanda ere, hezkidetzaren munduan bereziki esanguratsua izan daiteke hu- rrengo arrazoiengatik:

1.- Lehenik eta behin, tresna bera, hau da, teknologia tresna izateagatik. Teknologia (tradizionalki gizonezko- en eremua) neskei hurbiltzea ezinbes- tekoa da sozializazio prozesuan ema- ten diren aldeak orekatu nahi baditugu. Emakume/neska eta teknologiaren ar- tean dagoen tartea laburtu/apurtu be- har dugu. Horretarako IKTak eta haien aplikazioak (blogak, adibidez) geletan aprobetxatzea eta nesken erabilera bultzatzea garrantzitsua deritzot. Ildo horretatik oso adierazgarria den "**Des- xifrant el codi lela**" Donestech-en dokumentala ikustea gomendatzen di- zuet ([http://www.donestech.net/ca/](http://www.donestech.net/ca/el_documental_de_donestech_dexi-)

*frant\_el\_codi\_lela\_ja\_esta\_disponi- ble\_en\_4\_llengues*).

2.- Ondoren, tresnak ematen dituen aukerengatik:

- Alde batetik, blogak (2.0 webeko tresna guztiak), interneten nahi dugun edukia eskegitzeko askatasuna ematen digu. Askotan esaten dugu emakume- en mundua isilpean dagoela, espazio publikoan ikusezina dela. Blogak ego- era hori aldatzeko aukera ematen digu. Hitza gurea da. Erabil dezagun eta bul- tza ditzagun neskak hitza hartzera.

- Bestetik, elkarreraginerako dau- kan gaitasunak sareak osatzeko aukera paregabea ematen du; sarea ehotzeko tresna zoragarria da. Hezkidetzan lane- an ari garenek -sarritan sakabanatuta eta batzutan bakardadean- erraz eta modu bizian kontaktuan jartzen gaitu blogak. Blogosferan, edonorekin, he- mengoekin zein munduaren beste al- dekoekin, jar gaitzake harremanetan.

3.- Eta azkenik, aurrekoen ondo- rioz, bideratzen dituen edukiengatik. Gaur egun, blogosferari esker, hezki- detzako hainbat material didaktiko, proposamen, orientabide... eskura di- tzakegu. Hezkidetzari leiho bat zabal- tzen diogu mundu berri horretan. Gure esku dago.





Aurreko guztia kontuan hartuta, **Zubiak Eraikitzen Hezkidetzeta Taldea** osatzen dugun aholkulari eta irakasleok teknologia berrietara hurbiltzeko asmoz, IKTen erabilera bultzatzen hasi ginen. Hasieran web orri bat eta webquest batzuk egin genituen Martxoaren 8a ospatzeko, eta, handik gutxira, blogosferan buru-belarri murgildu ginen hezkidetzan aritzen garenon arteko sare ederra lortzeko asmoz. Izen bereko bloga sortu genuen esperientziak, berriak, ideiak, baliabideak eta abar partekatuko. (Mila esker Make eta Marisari ekimena martxan jarri laguntzeagatik).

Gure blogean hainbat edukiri buruzko artikuluak topa daitezke (estereotipoak, heziketa afektibo-sexuala, feminismoa, hizkuntza ez sexista, hezkidetzarako hainbat motatako baliabideak...) eta beste web orri edota blog batzuetara lotura interesgarriak. Eskegita daude baita ere, gure taldeak urteotan Martxoaren 8a ospatzeko egin dituen proposamen didaktikoak (webquestak, ikasleentzako blogak...). Dena "klik batean" eskura.

Baina gu ez gara bakarrak, inolaz ere. Azken hiruzpalau urtetan hezkidetzaren inguruan dauden blogak areagotu egin dira. Ildo horretatik, iaz Blogosfera Feminista eta **Euskal Blogosfera Feminista** sortu ziren, hau da, feminismoaren ildotik doazen blog multzoak. Dagokigun irakaskuntza eremutik ere hezkidetzako blogosfera osatu zen: **Coeducar en red, red de bitácoras de coeducación** (<http://iesazahar.org/coeducarenred/>). Sarearen ideia (hedatu, elkartu, partekatu...) gauzatzeko asmoz web orri horretan hezkidetzako blog sorta biltzen da. Haien artean gurea eta oso interesgarriak diren beste hainbat ere. Seguru diren guztiak ez daudela bertan, baina dauden guztiak gaiarekin lotura zuzena



na dute.

Zer topa dezakegu Blogosfera horretan? Ikastetxeko blogak agertzen dira gehienetan, bereziki Andaluziako ikastetxeetakoak. Hori ez da kasualitatea. Komunitate horretan azken urteetan hezkidetzaren alde egindako apustuaren ondorio da: ikastetxeetan Hezkidetzeta Proiektuak bultzatu dituzte eta horiek koordinatzeko hezkidetzeta arduraduna sortu dute. Egoera horrek (IKTen laguntzaz) oso emaitza onak utzi ditu: hezkidetzeta lantzeko ikastetxeko hainbat blog sortu dira, eta bertan, sentsibilizazio artikuluak, ikasleekin egindako lanak, baliabideak eta abar biltzen dira. Blog horietan irakasleek zein ikasleek hartzen dute parte.

Horien artean hiru aipatuko ditugu:

- **La naranja del azahar** (<http://lanaranjadelazahar.blogspot.com/>), Azahar BHIkoa. Gelako jarduerak, baliabide didaktikoak eta abar topa ditza kegu bertan. Blogaren eskumako zutabean "*Nuestros temas*" atalean baliabide guztiak gaika sailkatuta dauzkate.

- **Igualdad** (<http://www.iesgranca-pitan.org/blog01/?paged=2>), Gran Capitan BHIkoa. Oso blog aberatsa: iritzi artikuluak, informazioak, jarduerak, baliabideak...

- **Iguales en las tres mil** (<http://igualdad3000.blogspot.com/>), Antonio Dominguez Ortiz BH ikastetxeko Arte eta Filosofia Departamentuetako bloga. Mugimendu handiko bloga. Irakasleek zein ikasleek hartzen dute par-

te. Esteka interesgarri ugari eskaintzen ditu. (Ikasblogak Espiral Lehiaketan saritua izan zen).

Aholkularitza irakasleei zuzendutako blog batzuk ere agertzen dira. Horien artean bi aipatuko ditugu:

- **Educarueca** (<http://www.educarueca.org/>). Tutoretzarako orientabide eta baliabideak genero ikuspegia kontuan hartuta. (Ikasblogak Espiral Lehiaketan saritua).

- **Coeducación. Espacio para educar en igualdad** ([http://web.educastur.princast.es/proyectos/coeducacion/?page\\_id=2](http://web.educastur.princast.es/proyectos/coeducacion/?page_id=2)). Asturiaseko Emakume Institutuak eta Hezkuntza Sailak sortutako bloga: hezkidetzeta bultzatu nahi duten irakasleei zuzendutako gunea.

Hezkidetzan interesa baduzue eta blogetan ibiliak ez bazarete hau da nire gomendioa: lehenik, sartu helbide horietan, artikuluak irakurri, baliabideak arakatu, iruzkinak egin eta sareko partaide sentitu. Ondoren, interesgarria iruditu bazaizue, hurrengo urratsa eman: zeuen bloga sortu, zertarako erabiliko duzuen pentsatu eta lanean hasi. Anima zaitzete. Harrapatu egiten zaitu! •

Blogak egiteko sistemak:

<http://www.blogger.com>  
<http://wordpress.com>  
<http://nireblog.com>

Gure blogaren helbidea:

<http://zubiakeraikitzen.blogspot.com/>

Gurekin kharremanetan jartzeko:

[zubiakeraikitzen@yahoo.es](mailto:zubiakeraikitzen@yahoo.es)  
[b06bigarrengh@beritzeguneak.net](mailto:b06bigarrengh@beritzeguneak.net)

## Zer egin dezakegu eta zer egin behar dugu eskola gizartera gertura dadin



Kexati daude ekonomia eta politika arloetako hainbat arduradun; izan ere, eskolan nahiz unibertsitatean ez omen dugu euren gustuko profesionalik (ez dute aipatzen "persona integralik") prestatzen. Labur ez bada ere, ohartxo bat egin nahi nioke baieztapen horri, esanez Espainian nahiz Euskadin XX. gizaldian izandako irakaskuntza ofizialarekin bat eginez gero, paperean idatzita dotore geratzen diren printzipioetatik at, konturatzen garela gizarteak hezkuntzari atxiki dion funtzio garrantzitsuena zera izan dela: karrera unibertsitario edota prestigiozko beste titulu bat lortzeko hoberenak aukeratzeara. Hau da, bi hitzetan esanda, *kalitate profesionala* izan da lehentasuna, eta gutxiago, beraz, gure neska-mutilen beste formazio balio batzuk, garapen pertsonalarekin hain hertsiki lotutakoak. Baina, artikulua honen galdegaia ez da ea eskolan edota unibertsitatean garrantzitsuago den pertsona formatzea, edo aditua, edo aditu-pertsona, edo pertsona-aditua... Beraz, airean lagako dut eztabaida posible hori hurrengorako.



**Irigo RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA**

GIZARTE ZIENTZIAK

ESKORIATZAKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA (HUHEZI). MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Artikuluaren izenburuari erreparatuz, bi norabideko galdera baten aurrean ez ote garen ere susmoa dut; izan ere, eskola gizartera hurbiltzeko eskara egiten zaigun bezala, ahalegin ona bezain interesgarria izan daiteke gizartea bera ere eskolara hurbiltzea, ez hitzezko asmotan soilik (sarri komunikabideetan azaltzen direnak), baizik eta ekintzetan oinarritutakoak.

Galdera arrunt baten aurrean ere ez

ote gauden pentsatzen dut, gizartearen eta eskolaren arteko elkarrekintza behar-beharrezko ikusi dudalako betidanik, baina badirudi erritmo kontuak tartean edo, elkartzeko puntua topatu ezinean gabiltzala aspaldidanik.

Sintonia ezaren errudunak, agian, gaurko gizartean gero eta bizkorrago gertatzen diren aldaketak izan daitezke. Gaur, aldaketak ez dira garai batean bezala belaunaldi batetik besterakoak; une honetan, belaunaldi berean gertatzen direlako, hain zuzen ere. Eta gu horren lekuko gara. Beraz, gaur bizi ditugun aldaketak ez dira gure gurasoek bizi izandakoen tankerakoak, hau da, leunagoak, lokalak edota uneko egoeraren araberrakoak, baizik eta gero eta gogorragoak, zabalagoak (globalak ez esatearren) eta estrukturalagoak, eta gizartearen hainbat arlotan edota eremutan eragina dutenak: bai industrian, bai, nola ez, informazioan eta komunikazioan, bai gizarte ohituretan eta baliotetan, eta, zalantzarik gabe, baita familia ereduetan ere.

Beraz, egoera berri horren eraginez, hezkuntza prozesua inguruneare-

kin lotzera derrigortuta gaude, hura ulertu nahi badugu; alegia, ingurune horren beharrei eta interesei, eta, bereziki, ingurune horretako kideen beharrei eta interesei, erantzuna ematera. Horrekin guztiarekin, bada, ingurune horrek eskolaren eginkizunetako tes-tuingurua eta mugak ezartzen dituela ondoriozta genezake.

Baina, eskola batez ere hezkuntza denez, abia gaitezen geure buruari hezkuntza aipatzean zer ulertzen dugun galdetzen. "Hezkuntza" esatean, gizataldeek antolatutako ekintza gurariazkoak, hau da, ez bat-batekoak, baizik eta asmoa eta helburuak dituzten ekin-tzak, aipatzen ditugu. Palacios aditua-ren (1999, 408. or.) hitzak erabiliz, "gizataldeek, hainbat hezkuntza-prakti-karen bidez, beren kideei kulturalki antolatutako esperientzia asimilatzen eta aldi berean kide aktibo eta kultur sor-kuntzarako eragile bihurtzen lagun-tzen diete".

Arestian aipatutako esaldi horretan, "kultura" omen da hitz gakoa. Baina nola ulertzen dugu kultura hezkuntzan barna? Bada, gizataldeek historian zehar metatutako esperientzia multzo gisa. Bere esanahia, argiagoa agian, Pala-ciosen (1999, 408. or.) ahotan dugu ber-riro ere: "Kultura kontzeptua hemen zentzu zabalean hartu dugu, hainbat al-derdi bilduz: kontzeptuak, azalpenak, arrazoiketak, hizkuntza, ideologia, ohiturak, balioak, sinesmenak, senti-menduak, interesak, jarrerak, jokabi-de-jarraibideak, familia, lana edo eko-nomia antolatzeko moduak, habitat-motak, eta abar. Historian zehar gizatal-deek erronka eta zailtasun asko izan di-tuzte eta horiei aurre egiteko talde-erantzunak sortu izan dituzte. Horrela metatutako esperientziak osatzen du talde horien kultura".

Arestian aipatutako kulturaren al-derdi ugari horiek betetzeko, ekimen berezia sortu da gizarte konplexuetan: eskolatze prozesua, hain zuzen. Ho-rronbestez, hezkuntzak jarduera-mul-tzo bat hautatzen du, jarduera horien bidez talde bateko kideak historikoki metatutako eta kulturalki antolatutako

gizarte-esperientziaz jabetuko direla bermatzeko. Hezkuntza-jarduerak hainbat modutan antolatuko dira, eza-gutza kulturalaren tamaina eta eduki zehatzaren arabera.

Baina zein funtzio betetzen ditu (edo bete beharko litzuzke, agian) esko-latze prozesuak (hezkuntzak)? Bi omen dira: indibidualizazio eta soziali-zazio funtzioak. Azkenekotik hasita, soziazio funtzioak gizarte baten kulturaren transmisioa ziurtatzen duela esan behar da, hau da, kulturalki anto-latutako esperientziak transmititzea. Horren bidez, eskolak gizabanakoa gi-zartearen kide bihurtzea eta, beraz, so-zializatzea lortu nahi du. Horri transmi-sore funtzio ere deitu izan zaio. Baina, funtzio hori eskolari al dagokio soilik? Gure haurrek jasotzen duten lehenda-biziko soziazioa, eta, beraz, lehen-dabiziko kulturaren aztarnak, etxetik datozkie. Izan ere, gurasoek, aitona-amonek... familiak azkenean, izaera, hizkuntza, ohiturak, balioak, sinesme-nak... transmititzen ditu. Transmisio hori ziurtatzea oso garrantzitsua da haurrentzat, eta familia da (edota izan beharko litzateke) hori ziurtatzeko le-hen erakundea; ondoren, eskolak har-tzen du zeregin berezi gisa gizarte ba-ten kultura transmititzea. Horren ara-bera dator eskolatzearen bigarren fun-tzioa, indibidualizazioarena, hain zu-zen ere. Haren bidez, eskolak gizarte-aren kide aktibo, kritiko eta sortzailea bihurtu nahi du gizabanakoa, haren ga-rapen pertsonal osoa bultzatuz. Santos Guerrak (2000, 23. or.) Stenhausen ideia bat erabiliz esaten duen bezala, kultura ezagutu behar da ez berak gu menperatzeko, baizik eta kritikatzeko eta eraldatzeko. Gaur egun, gainera, gero eta beharrezkoagoa da hori.

Eta zer esan, bada, eskola eta hez-kuntzaren arteko harremani buruz. Eskola eta hezkuntza krisian daude, agian, gizarte bera ere krisian dagoela-ko. Horrekin esan nahi da, hezkuntza-ren alde humanistikoarekiko soka eten bada, hori, gizarte bera ere gizatasuna galtzen ari delako izan dela. Alegia, eta Mario Fernández Enguitaren

**Eskola eta hezkuntza krisian daude, agian, gizarte bera ere krisian dagoelako. Horrekin esan nahi da, hezkuntzaren alde humanistikoarekiko soka eten bada, hori, gizarte bera ere gizatasuna galtzen ari delako izan dela.**



(<http://enguita-info.blogspot.com/2008/07/el-desafio-de-la-educacion-en-la-sociedad.html>) hitzak erabiliz, gizarte-hezkuntza binomioaren beste norabidea adierazten digu. Hala, gizarte bide "onetik" eramateko eskolak eta hezkuntzak duten gaitasunazari de-nean, Enguitak galdetzen du ea ez ote daraman gizarteak eskola nahi duen le-kutik, eta ez ote duen erabiltzen nahi duen moduan, eskolak berak gizarte zuzendu beharrean. Balio al du eskolak zeregin eraldatzaileetarako? Hezkun-tzaren gaurko 'zertarako' sakonak dira kolokan jarri direnak. Eskola eta hez-kuntza ez daude gizartetik at, ezta gu-txiago ere. Eskola eta hezkuntza gizar-teko joeren parte dira, ezinbestean. Haien ispilu gisa hartu behar dugu es-kola. Beraz, baliteke gakoa ez egotea eskolan eta hezkuntzan, gizartean bai-zik. Baina eskolari dagokio, apaltasu-nez eta gizarteko eragileetako bat den heinean, gizarteko mugimendu eta ba-liao aurrerazaleak indartzen laguntzea, eta kaltegarrien aurka jardutea. Eta ez da gutxi. Egokitzapenaren eta eralda-ketaren arteko gatazkaz kontzientzia hartzea da funtsezkoena, dialektika ho-rron garrantzia ur azalera ekartzea, soi-lik bide horretatik administratu ahal izango dugulako berau modu egokian.

Eskolari dagokio, besteak beste, gi-zartearen gustukoak ez diren alde ilu-nak erakustea<sup>1</sup>. Hortxe identifikatzen dugu hezkuntza mundutik gizarteari



**Eskola eta hezkuntza ez daude gizartetik at, ezta gutxiago ere. Eskola eta hezkuntza gizarte-ko joeren parte dira, ezinbestean. Haien ispilu gisa hartu behar dugu eskola. Beraz, baliteke gakoa ez egotea eskolan eta hezkuntzan, gizartean baizik.**

egin dakioken ekarpenik interesgarrienetakoa. Eskolak, bestelako gizarte eragile batzuekin batera, pertsonaren baitan balio hezitzaileak eraikitzen lagun dezake, gizarteko joera kaltegarriak saihestu eta aurrerazaleak (gizazaleak) indartzeko bokaziotik, hain zuzen. Gizarte testuinguru erabat dinamikoan, osagai gizatiarrak identifikatzea eta gizakiaren alde egiten duten balioak indartzea eskolari dagokio batez ere. Motibazio orokor horretan kokatu nahi dut, bada, eskolaren eta hezkuntzaren gaurko zeregina.

Beraz, eskolak eta hezkuntzak gizartearen aurrean duten zeregin garrantzitsua justifikatu nahian, badirudi eskolan dihardugunok testuinguru teorikoso baten jabe garela, nahiz eta gizarteko hainbat eragilek beste diskurtso ezkorrago bat izan. Beraz, **zer egin dezakegu eskola gizartera gertura dadin?** Nahikoa ote da gure hezkuntza planteamenduetan inguratzen gaituen gizartearen nahiak, kezkek eta erronkak eskolaratzea? Eta hori balitz konponbidea, nola gauzatu?

Osatzen dugun hezkuntza komunitateaz hitz egiten dugu sarri. Komunitateaz dihardugunean hezkuntzako gizarte eragileen parte aktibo eta zuzena esan nahi dugu, irakasleei haurren nahiz gazteen heziketan duten ahalmen eskusiboa kenduz, nolabait esateko, eta zeregin hori komunitateare-

kin partekatuz (inklusiboa). Beraz, badirudi horrela bi norabideko zeregina duen hezkuntza (eta eskola) lortzen dugula, arestian esan dudanaren ildotik. Baina, gaurko garaiek agian ez dute bide hori gehiegi errazten, egunerokotasunak irentsi egiten gaituelako. Dena den, ikastetxeetako organo (Eskola Kontseilua, Zuzendaritza, Klaustro) nahiz eragileek (irakasle, langile, udal ordezkari) bidea erraztu beharko dute egitasmo hori egia izan dadin. Alegia, eskolatik hurbilen dauden eragileak hurbildu beharko dituzte, eta gizarte horretan dauden nahiak, kezkek, erronkak eskolan irauli.

Baina beste gauza batzuk ere egin daitezke eskola barrura begira, nahiz eta bertako ateak eta leihoak kanpora zabalik izan:

- Curriculumak ireki. Urtero gain-begiratu, eta une horretan bizi den gizartearen errealitatearekin bat egin. Adin bakoitzari begira, aproposak diren helburu eta edukiak aukeratu, eta horiek garatzeko baliabide egokiak erabili. Nahi beste denbora eskaini gaiei, eta diziplinen artekoa aplikatu.

- Testuliburuak era kritikoa aukeratu eta erabili. Gehiago erreparatu behar diogu era masiboan erabiltzen den bitarteko horri. Askok ez dute loturarik egun bizi ditugun garaiekin eta batez ere norberaren kulturarekin eta errealitatearekin. Aldi berean, deskripzio soilan oinarritutakoak baztertu behar dira, eta bat egin eztabaida, esperimentazioa nahiz hausnarketa eskaintzen dutenekin.

- Metodologia aktiboen bidea landu. Haurrek eta gazteek gizarteaz dituzten kezketatik abiatu, eta estrategia kooperatiboak bultzatu.

- Gertukoak direnetik abiatuz, askotariko dimentsioak aplikatu. Alegia, gureak diren kezketatik hasiz, dimentsio europarra eta mundu mailakoa erabiltzen ikasi, eta horretarako informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dizkiguten abantailak erabili.

- (...)

Guk geuk, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate-

an, tratamendu berezia eskaintzen diogu eskola eta gizartea uztartzen dituen esparruari, baina ezinezko bikote gisa hartzen ditugulako. Binomio horretan kontzientziatu eta hezi nahi ditugu gure ikasleak, eta hezitzaile lana (transmisioan oinarrituta) izango duten etorkizuneko irakasleei, eskola eta gizartearen arteko sintoniak garrantzia handia duela adierazi nahi diegu; zeinen garrantzitsua den bata besteari markatutako "bidaia orria" diseinatzea. Horretarako, iparrorratz ona jarri nahi dugu haien esku-orain, GPS-, irakasle hezkuntza curriculumean "Eskola eta Gizartea" izeneko bi modulu espezifiko eskainiz; bata, lehen mailan eta bestea, bigarren mailan. Abiapuntua eta helburua argiak direlakoan gaude: gertuago duten gizartetik abiatuz, egungo gizartearen eta eskolaren deskripzioa, azterketa, interpretazioa eta hausnarketa ahalbidetzea. Eta bide batez, eskola gizarteratu gizartea eskolatuz •

#### **Iturriak**

- FERNÁNDEZ ENGUIA, M.: *El desafío de la educación en la sociedad del conocimiento*, Confederación Sindical de Comisiones Obreras, Gaceta Sindical, Reflexión y Debate, 10 de julio de 2008, 2008.

- MU-HUHEZI (Mondragon Unibertsitateko, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea). Mendeberti Proiektua: 1.1. Moduluak: Eskola eta Gizartea (hainbat dokumentu). Tutoreak: Karmele Perez, Ainhoa Moiu, Iñigo Arteax, Julen Arexola-Leiba, Iñaki Garcia eta Iñigo Ramirez de Okariz. 3.1. Moduluak: Ikastetxearen Antolamendua. Talde dinamika. Gurasoak eta irakasleen papera heziketan (hainbat dokumentu). Tutoreak: Aitziber Arregi, Ederne Galindez, Juanjo Otaño, Joxe Amiana eta Iñigo Ramirez de Okariz.

- PALACIOS, J.: *Garapen psikologia eta hezkuntza prozesuak*, Palacios, J., Marchesi A., Coll c. (bilduma), 1999: *Garapen psikologia eta hezkuntza, I Psikologia Ebolutiboa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1999.


- SANTOS GUERRA, M.A.: *La escuela que aprende*, Morata, Madril, 2000.

- ZABALA VIDIELLA, A.: *La práctica educativa. Cómo enseñar*, GRAÓ, Bartzelona, 2007.

<sup>1</sup> 2007ko inkesta baten arabera, ingurumenarekin lotutako arazoak dira kezkarrienak 6 urtetik 17 urtera bitarteko haur eta nerabeen % 30entzat. Ondoren datoz gerrak (%23) eta pobrezia (%16). Iturria: "Los niños ya no quieren ser como papá", El Mundo, 2007/02/20.



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

urtarrila

berriak

# Psikomotrizitate jardunaldi arrakastatsua

"Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: Pedagogia koherente baten bila" izenburuean azaroaren 28an eta 29an, Donostian eta Durangon egindako jardunaldiak oso arrakastatsua izan ziren. Parte-hartzea handia izan zen, 300 pertsona baino gehiago bildu ziren, eta hizlariak zein entzuleek ideia interesgarriak plazaratu zituzten.

Psikomotrizitateak haurren garapenean duen eraginaren inguruan mintzatu ziren parte-hartzaileak eta praktika horren garrantzia azpimarratu zuten hizlariak. Alderdi kognitiboa lantzeaz gain, gorputza lantzeak eta garateak duen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten guztiek.

"Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: haur txikiaren hezkuntzan eta garapen globalean duen garrantzia, haur txikiaren eskola prozesuan ekarpenak" izenburuean hitzaldi bana eskaini zuten Alvaro Beñarane eta Elena Herrane. Antzuolako Herri Ikastetxeko andereñoek euren esperientziaren berri eman zuten, eta Carles Fontek galdera hauei erantzun zien hitzaldiaren bidez: "Onar al ditza kegu eskoletan haurrek askatasunez nolakoak diren esateko aukera emango dieten segurtasun espazioak?. Plazerraren printzipioa. Bilaketaren pedagogia. ("Adierazpen libre"-ak zer baitesaten al digu?). Baretasun psikikoa: Beharrezkoa al da eskolan psikismoarentzako espaziorik?". Hitzaldi guztiek psikomotrizitatearen arloan sakontzeko aukera eman zieten parte-hartzaileei eta eztabaida eta iritzi trukaketa mamitsuak izan ziren bai Donostiako saioan eta baita Durangokoan ere.


Ikasurte honetan X. Hik Hasi Topaketak egingo ditugu uztailan, eta ikasurtean zehar antolatuko ditugun jardunaldietatik lehena izan da psikomotrizitateari buruzkoa.



# Geografian aditu/aritu bideo-jokoa kaleratu du Elhuyarrek



Brain training motako bideo-joko berria da Geografian aditu/aritu, eta adin guztietako pertsonentzat da egokia. Jokalariak munduko mapa politikoak eta fisikoak menderatu beharko dituzte, eta euskarazko toponimoak zuzen idazten jakin. Lau atal ditu: “Non dago?”, “Izena ipini”, “Puzzlea” eta “Eskalak”. Bost kontinenteetako mapak, Espainiako mapak, Frantziako mapak eta Euskal Herriko mapak biltzen ditu bideo-jokoak, eta horietako bakoitzarekin, zailtasun-maila aukeratu ondoren, lau jokoetan aritu daiteke jokalaria. Horrez gain, mapa mutuak deskargatzeko aukera ematen du. [www.elhuyar.org/geografiaweb](http://www.elhuyar.org/geografiaweb) gunean topa dezakezue bideo-jokoaren demoa.



# Tknika zentroak I + G + b ziurtagiria jaso du



Tknikak, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntza Berriztatzeko Zentroak, I + G + b ziurtagiria jaso du. Ziurtagiri horrek Tknikak honako jarduerak egiteko aukera duela esan nahi du:

- Berriztapenaren kudeaketa sistematizatzea eta egituratzea, eta, aldi berean, Lehen Hezkuntzarako produktu eta zerbitzu berriak sortzeko prozesua gehiago kontrolatzea.

- Berriztatzeko prozesua Tknika kudeatzeko sistemaren barruan integratzea.

- Berriztapena ikuspegi integral batekin kudeatzea.

Tontxu Campos, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak Tknika zoriondu du egin duen lanagatik.

## Hiru urtez azpiko haurrentzat telebista saiorik ez ematea gomendatu du Frantziako Kontseiluak

Telebistak hiru urtez azpiko haurren garapena kaltetu eta haiengan insomnia, kontzentrazio falta, pasibotasuna eta adikzioa eragiten dituela adierazi du Frantziako Ikus-Entzunezkoen Kontseiluak, eta adin horretako haurrentzat saiorik ez ematea gomendatu die batez ere bi telebista kateri: BabyTV eta PlayHouser. Horrez gain, ordainduta ikusteko telebisten kasuan, eskolaurreko haurrentzako telebista kateak pantailetan alerta mezuak jartzera behartu ditu. Era horretan, gurasoak seme-alabek telebista ikustek izan dezakeen eragin kaltegarriaz jabetu nahi dituzte. Eta, telebista kate horien inguruan publizitatea egitea ere debekatu du Kontseiluak. Telebista horietako arduradunek ziurtatu dute, sortzen dituzten saioak gurasoek seme-alabekin batera modu interaktiboan ikusteko sortzen dituztela.

## Ikastaroak

\* **Gatazkak kudeatzen eta elkarbizitza hobetzen ikasten** **Noiz:** urtarrilak 16-17. **Non:** Bilbon. **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa. **Izena ematea:** 902 431 179 edo [inscripciones@fundacionnce.org](mailto:inscripciones@fundacionnce.org). **Informazio gehiago:** [www.fundacionnce.org](http://www.fundacionnce.org)

\* **Mind-mapping: buru-mapak** **Noiz:** urtarrilak 19 eta urtarrilak 26. **Non:** Barakaldon. **Izena ematea:** 688 650 682 edo [eleder.aurtenetxe@gmail.com](mailto:eleder.aurtenetxe@gmail.com). **Informazio gehiago:** <http://burumapak.blogspot.com/>

\* **Gaitasun eleaniztunaren erronka curriculum berrian** **Noiz:** urtarrilak 29-30. **Non:** Bilbon, Euskalduna Jauregian. **Antolatzailea:** Gaztelueta fundazioa. **Informazio gehiago:** [www.jornadasgaztelueta.org](http://www.jornadasgaztelueta.org)

# Seaskako ikasle ohien bilakaera ikertuko du Gaindegiak

Hezkuntekek eta Seaskak ikasle ohien bilakaera ikertzeko eskatu diote Gaindegiari, eta Seaskatik igaroriren ikasleek bai hezkuntzan, bai lan arloan izan duten bilakaera aztertzea da elkarlanaren helburua. Ikasle guztiengana iritsi nahi dute eta guztira 1.400 pertsonaren bilakera aztertuko dute horretarako. Inkestak egingo dizkiete ikasleei, eta inkesta sakonak izango dira, horietako bakoitza betetzeko bi ordu beharko baitira gutxi gorabehera.

Xalbador, Pierres Larazabal, Manex Erdozaintzi edota Bernard Etxepare ikastetxeetatik pasatu diren ikasleei deia egin diete zuzenean haien berri emateko, zaila izango baita, bestela, ikasle guztiak topa-

tzea. Ikasle ohiek beren telefono zenbakia edota helbide elektronikoa Gaindegiari helarazteko eskatu dute eta horretarako helbide elektronikoa eman dute: [ipar.eh@gaindegia.org](mailto:ipar.eh@gaindegia.org). Era berean, gauzak errazte aldera, webgunea prest izango dute ikasle ohiek galderei bertatik erantzuteko.

## **Ikastola berria ireki dute Arberoan**

Donamartirin, Arberoan, Nafarroa Beherean zabaldu du Seaskak bere 26. ikastola. Hamar bat haur hasiko dira ikastolan, eta datorren urtean, 15 bat ikasle izango direla espero dute. Aurten, 2009an, 27 ikastola izanen ditu Seaskak, Bidarten, Lapurdin beste bat zabalduko baitute.

## **40. urteurrena ospatzeko prest**

Hasi berri dugun urtean 40 urte beteko ditu Seaskak eta ekainaren 14ean urteurrena ospatzeko festa egingo dute Kanbon. Baina horren aurretik ere, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, besteak beste, apirilaren 11n Miarritzeko Gare du Midin izango den kantaldia. Eta, jakina, bien tartean urteroko zita: Herri Urrats maiatzaren 10ean izango da aurten.

## **Zuzentze neurriak jarriko dizkiete “jokabide ezegokia” duten ikasleei**

Unibertitatez kanpoko ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuak dioenez, jokabide desegokiak dituzten ikasleei neurri zuzentzaileak ezarriko dizkiete aurrerantzean. Arduradunek esan duteenez, helburua ikastetxeetako bizikidetzeta eta elkarkidetzeta hobetzea da.

“Dekretu honekin, zero tolerantzia izango dugu tratu txarrekin”, haxe adierazi zuen, Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aurkezpenean. Izan ere, tratu txarren egileei ezarriko zaizkie neurritik gogorrenak; horien artean, baita ikastetxe aldaketa ere.

Ikasleen jokabide desegokiak hiru multzotan sailkatzen ditu dekretuak: lehenik, jokabide desegokiak deitu dituztenak leudeke, horien artean, arrazoirik gabe eskoletara huts egitea edota azterketetan kopiatzea. Bigarren multzoan, bizikidetzaren aurkako jokabideak sartu dituzte; irakasleen aginduak ez betetzea, irainak edota mehatxuak egitea... eta, azkenik, hirugarren multzoan bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak; eraso fisikoak eta psikologikoak, sexu jazarpena, diskriminazioa... Ikasleei ezarriko dizkieten neurriak larritasunaren araberakoak

izango dira, egindakoaren gaineko hausnarketatik hasi eta egun batzuk etxean egiteraino. Ikasleak jarrera aldatu, eta, adibidez, egindakoa gaizki dagoela onartuko balu, neurriak arintzeko aukera egongo litzateke.

Bada beste aldaketa garrantzitsu bat: orain arte horrelako neurriak eskola kontseiluak hartzen bazituen ere, hemendik aurrera ikastetxeetako zuzendariak berehala hartu ahal izango dituzte erabakiak.

Dekretua onartuta, sei hilabete izango dituzte ikastetxeek horretara egokitzeke.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen abenduko eztabaidak utzi diguna...

>>> Euskal Herriko zenbait ikastetxetan ordutegi jarraia dute. Zer iruditzen zaizu ordutegi jarraia hezkuntza etapa guztietara zabaltzea?

> Eskolak oinarriak finkatzeari ekin behar dio. Hori da bere egitekoa. Denok oinari beretsuak izaten lortzea, oso oinarritzakoak direnak. Hortik aurrera, denbora libre da behar dena, bakoitzak gustukoa duen hura gara dezan. Eskolan bi edo hiru ordu egotearekin nahikoa litzateke. Derrigorrezkoak bost ordu direla? Beno, aguantatzea eta ahalik eta lasterren pasatzea onena... *Patxi*

> Patxi, eskolan 2-3 ordu aritzea nahikoa dela esatea eta ikasleek oinarri beretsuak lortzea ez al daude kontrajarrita? (...) Ados nago eskolak denoi oinarri beretsuak lortzen saiatu behar duela esaten duzunean. Euskal Herrian, euskara ezagutzeak oinarri beretsuak jartzen laguntzen du. Eta ikerketen arabera, euskaraz aritzen diren denborak eragina du emaitzetan. Ez da faktore bakarra, baina bai garrantzitsua. Bizikidetzan ere horrenbeste esan genezake... (...) Herri bat eskolaz kanpokoak ongi antolatzeko eta denei erantzuteko gai dela? Zoragarri! Halakoan, ez dut uste eskolako denbora jarraia izatea arazo denik. Eskola orduak gutxitzea ere ez litzateke arazo izango. Ezagutzen al duzu halako gaitasuna duen herririk? Nik ez. *Iker*

>...Eskolak jokutzen duen edo jokatu beharko lukeen paper kohesionatzailea eta aukera berdintzailea dela-eta, ez dut uste eskola ordutegia murriztu behar denik, alderantziz baizik. Ene ustez, eskolan igarotzen den denborak joku libreagoa eskaini beharko luke. Ikasle bakoitzaren ahalmenak garatzeari aukera gehiago eskaini. Hau da, pedagogia estiloa aldatu behar da... *Lierni*

> Ikastetxeetan zer irakasten da? Telebistak, kaleak eta internetak ez al dute gehiago irakasten? Irudiak, komentarioak, mugimendua, bizitza... Ikastetxe gehienak hilda daude, ia guztiak esango nuke, hilotzaren usaina darie, ez daude gaurko eta etorkizunerako gizarteak eskatzen duenari erantzuteko prest. Agur ikastetxeak; agur gerri-loditze olak, agur buru suntsitzaileak, agur betirako eta ez itzuli berriro, aurreko milurteko asmakizuna. *Eugenio*

>...Eskola, jendartearen espektatibei erantzuteko bitarteko ezinhobea da. Dinamika irekia, elkarlanekoa eta kritikoa erabiliz, etorkizuneko jendartea hobetzeko instituzioa izan behar du. Hori da bere egiteko nagusia ene uste apalean. (...) Herritarrek, etorkizuna hobetzeko, eskolan jarriak ditu begiak. Eskolak orain arteko izaera aldatu beharra duela? Agian, bai. Hitz egin dezagun zer aldatu eta zertarako... *Ane*

## Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Ordutegien gaineko eztabaidak zeresan handia eman du eta urtarrilean ere, galdera berari eutsiko diogu. Zuen ekarpenen zain gaude!

## Partekatze proiektuak

Eskuartearen proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzeri bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete bestekin PARTEKATZERA!

## Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak




**Harry Potter eta Herioaren erlikiak**  
Joanne Rowling  
ELKAR

Harry Potter bildumako zazpigarren eta azken liburua da. Harryri zirt edo zart egiteko ordua heldu zaio, aspalditik iragarritako aurrez aurrekoa: Harry Potter eta Voldemort hil ala bizi. Gauzak asko nahastuko dira ordea eta askotan erabaki zailak hartu beharko ditu Harryk... Inaki Mendiguren Bereziartuak egin du itzulpena. 12 urtetik gorakoentzat •



**Mari Ttipia**  
Mikel Tellagorri  
SUA edizioak

Bost liburuko bilduma da eta Mari Ttipia Euskal Herriko hainbat txokora joango da bere lagunekin. Orain arte argitaratutakoak hauek dira: "Mari Ttipia Pasaiaiko itsasartean", "Mari Ttipia Zugarramurdiko akelarrean", "Mari Ttipia Holtzarteko zubian", "Mari Ttipia Zugaztietako meatzeetan" eta "Mari Ttipia Delikako arroilan". J. Ignacio Trekuk egin ditu marrazkiak •



**Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)**  
Zenbaiten artean  
EUSKALZAINDIA - OIARTZUNGO UDALA

Juan Mari Lekuona zenaren omenegindako liburua da eta hiru zati nagusi ditu: "Lekuona. Gertuko erretatuak", "Lekuonaren bizitza ibilbidea iruditan (1927-2005)" eta "Lekuona. Literatura ikerle eta poeta". Liburuak Lekuonaren bizi-urratsak orotzen ditu, euskal idazle ezagunen lekukotzen bidez eta senideek eta lagunak utzitako argazkien bidez •



**Tantak aldizkaria**  
2008ko abendua. 40. zenbakia  
EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkariaren azken alean, besteak beste, "Islamari buruz ikonoen bidez zabaldutako mezuak, euskarazko testu-liburuetan" Mario Unamunoren artikulua edo Maria Angeles de la Cabak idatzitako "Adin txikikoen ebaluazio sozio-pertsonala egoera ahul-ahuleko testu-guruetan" artikulua aurkituko ditugu •



**Inkiszioa. Heresiaren kontra**  
Koldo Ortega eta Alizia Stürtze  
GAIK

Ofizialki 1233an sortu zen Inkisizioak sei mendez jazarri zuen heresia, Europa osoan. Espainiako errege-erregina katolikoek abian jarri zuten tresneriak gogor jo zuen, izuaren bidez, batez ere euskaldunon eta Amerikako indiarren kontra. Hori guztia du aztergai Gaiak argitaletxeak aurkeztu digun liburuak •



**Hada baten heziketa**  
Didier van Cauwelaert  
EREIN

Nicolas Rockel zorionsua da Ingrid eta haren semea ezagutu dituenetik, baina lau urteren ondoren, Ingriden harreremana utziko du. Raouel, ordea, gurasoen arteko harremana salba dezakeen hada baten bila hasiko da. Idazleak modu sinesgarrian jarri digu egunero biziaren bizitzaren alboan •

# ... nora joango gara?

## Haritz Berri Baserri Eskola

### Txikienak baserri girora gerturatzeko aukera

Esnea tetrabrik delakotik datorrela pentsatzen duten haurrak badirela entzun izan dugu noizbait, baina horiek Euskal Herritik kanpokoak direla pentsatu izan dugu horrelakoetan. Gurean, baserria ekonomiaren ardatzetako bat izan den lur honetan ere, bada, esnea behiak ematen duela jakin arren, nola lortzen den ez dakienik. Eta, hain zuzen ere, horrelako uste okerrak baztertzearekin batera, baserri mundua txikienei gerturatzea du helburu Ilundainen dagoen Haritz Berri Baserri Eskolak.

Nafarroa Garaian, Aranguren haranean kokatuta dagoen herri txikia da Ilundain. Eliza eta Haritz Berri Baserri Eskola besterik ez daude han. Nafarroako gobernuak herria erosi zuen, eta Ilundain-Haritz Berri Fundazioaren egoitza kokatu zuen izen bereko herrian. Gizarte arretarako, arreta profesionalerako eta ingurumen gaiak lantzeko fundazioa da, eta proiektu horrekin lotuta sortu zuten Haritz Berri Baserri Eskola duela 20 urte.

Baserria, ukuilua eta bertako animaliak ez ezik, baratze ekologikoa eta basoa ere bisita ditzakete Haritz Berrira gerturatzen direnek. Gainera, eskaintza zabaltzen ari dira etengabe, eta

energia berriztagarriak lantzeko parkea ere bisitatu ahal izango da urtarriletik aurrera. Klimaren arloa ere jorratu nahi dute etorkizunean, eta estazio meteorologiko didaktikoa jarri nahi dute abian, baita uraren birziklatzea azaltzeko gunea ere.

Baina baserria bisitatzera gerturatzen dira, batez ere, ikasleak Ilundainera, hori lantzeko beharra handia baita gaur egun. Gehienbat, Haur Hezkuntzako haurrak joaten dira, adin horretan hasten baitira animaliak lantzen. Iruñerrikoak izaten dira gehienak, eta hiri inguruak izanik, ez dute baserri mundua ezagutzen, Mikel Lasarte Haritz Be-

rri Baserri Eskolako zuzendariak esan digunez: "Haurrek oihaneko animalien gaineko dokumentalak ikusten dituzte telebistan, eta gehiago dakite lehoiari edota tigreaki buruz bertako animaliei buruz baino". Esnea, oilaskoak edota urdaiazpikoak nondik etortzen diren ez dute jakiten, eta gehien eskertzen dutena animaliak bertatik bertara ikusteko eta horiek ukitzeko aukera izatea da.

Taldeak iristen direnean, Sutondoko gela deitzen den gelan biltzen dituzte, haurrei ikusi behar dutenaren gaineko azalpenak ematen dizkiete, eta arauak zein diren jakinarazten diete.







Gero, taldeak egiten dituzte, eta animaliak ikusteko bisitaldi gidatua hasten dute. 400 bat animalia dituzte, 40 espezie baino gehiagokoak, eta bertako arrazak ikus daitezke; behi piriniarra, latxa arrazako ardia, euskal oiloa, bertako behorrak, hegazti mota asko, untxiak... Animalia bakoitzaren alderdi garrantzitsuenak aipatzen dizkiete ikasleei: familia zer animaliak osatzen duten, zer produktu ematen dituzten, zer elikagai mota behar dituzten, nola zaintzen diren, ezaugarri garrantzitsuenak zein diren...

Baratze ekologikoa lantzerako joaten denik ere bada, eta beste talde batzuek basoko ekintzak egiten dituzte. Basoan, zuhaitzak, zuhaixkak, bertako landareak, biodibertsitatea... lantzen dituzte.

Metodologia praktikoa da, eta haurrek aurrez duten ezagutzaren arabera lantzen dituzte gaiak. Aurrez irakasleekin hitz egiten dute haurrek zer landu behar duten jakiteko, eta, Mikelek esan digunez, bisita egin aurretik ikastetxean gaia lantzen dutenean, askoz ere aberatsagoa izaten da Haritz Berriko bisita. Nolanahi ere, Haritz Berri Baserri Eskolan, haurrak ingurumenarekiko errespetuzko jarrerak izatera bultzatzea da helburu nagusia •

## HARITZ BERRI BASERRI ESKOLA

San Juan  
31192 ILUNDAIN (Nafarroa)  
Telefonoa: 948 339 004  
Faxa: 948 339 088  
www.granjaescuela-haritzberri.com  
ilundain.3008@cajarural.com



### Oharrak:

- Prezioa: bisitak 5,25 euro balio du. Jardueren arabera, prezioak aldatu egiten dira.
- Jarduera guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezke.
- Aterpetxean bertan bazkaltzeko aukerarik bada, hala nahi izanez gero.

### Jarduerak:

#### Bisitaldi gidatuak

- Baserri eskolara edota baratze ekologikora.
- Ilundaingo basora.

#### Jardunaldiak Baserri Eskolan

- Etxaldea.
- Baratzea.
- Basoa.
- Ikastetxeak proposatutako beste bat.

#### Egonaldiak

- Bi egunekoak edo egun gehiagokoak izan daitezke.

#### Udako kanpaldiak

#### Tailerrak

- Baserriko edota baratze tailerra.
- Birziklatze tailerra.
- Sendabelar tailerra.
- Herri kirol tailerra.
- Erlezaintza tailerra.
- Ogi tailerra.

### Natur baldibideak:

- Baserria, hainbat animalia motarekin.
- Baratze ekologikoa: negutegiak, fruta arbolak, mahastia.
- Iruñerriko lehorreko laboreak: zerealak, olio landareak, ilarak...
- Lore eta landare mintegia.
- Lorategi botanikoa, 90 landare motarekin.
- Baso didaktikoa: 10.000 metro koadro ditu eta interpretazio lana egiteko prestaturik dago.
- Ibilbideak Ilundaingo basoan: aterpea, oreinak, belardiak, galtzeko arriskuan dauden bertako arrazak...
- Baserriko tresnen erakusketa.
- Milagro-Zaraitzu abelbidea.
- Energia berriztagarriak.
- Estazio meteorologikoa.

### Lanerako baldibideak:

- Etxe inguruko koadernoak (baserria, baratze ekologikoa eta basoa).
- Web orrialdea.
- Argitalpenak: Ilundaingo basoa eta Ilundaingo landareen gida.

# atzeko atetik



Conny Beyreuther

## Aritz SOUND SYSTEM

MUSIKA-ADIKTOA

Urteak dira ikasle garaiak pasa ni-tuela, eta orain, orduan baino are kriti-koagoa naiz jaso nuen hezkuntzarekin. Haurtzaro zoriontsua izan nuen oso (pribilegiatua ni), baina, ordu asko ber-tan pasa arren, garai hartako pasarte ederren artean, gutxi dira eskola giro-koak. Jasotako hezkuntzaren zama na-bari dut oraindik bizitzaren alor asko-tan. Eskola garaiak oroitzen ditudane-an, besteen artean, hitz hauek datozkit burura: azala, itxura, kopurua, teoria, lasterketa, hartzaila eta norbanakoa. Ikastea oztopoz betetako lasterketa zen eta helmuga, hala edo nola, titulua lortzea. Ikasleak, adinaren arabera sail-katuta, eduki teorikoz bete beharreko poltsa hutsak ginen. Edukiak testuak eta zenbakiak ziren, zenbat eta gehiago

## Ikasle garaiak

hobe, eta garrantzitsuena, azterketa egunean, aurreko egunetan buruz "ikasitako" eduki horiek errepikatzen jakitea zen. Hori bai, behin azterketa gaindituta, disko gogorraren formate-oa egin genezakeen, lasai asko.

Edukiak, askotan, gure garaiarekin eta inguruarekin arrotzak ziren, eta ber-takoa baztertuta, kanpokoari ematen zitzaion garrantzi handiagoa. Ikasketa teknikoak bai, baina zer erakusten zen giza harremani buruz? Osasuna, se-xualitatea, sentimenduak, elikadura, aisialdia, drogak, lana eta abar, gure bi-zitzaren ezinbesteko parte dira, eta ho-ri buruz dakiguna, kaleak eta bizitako esperientziek erakutsi digute. Ikasleak hartzaila hutsak ginen (kontsumitzaile) eta irakasleak zein liburuak esandakoa ontzat hartu eta, xehatzeko denborarik gabe, kontsumitu beharra genuen.

Izotzezko irakaslea irudikatzen dut. Talde lana ez zen apenas bultzatzen eta bakarka egin behar izaten genuen lan asko (besteak kompetentzia balira be-zala). Lanak entregatzeko garaian, edu-kiari baino, orrialde kopuruari errepa-ratzen genion gehiago. Badakit urte as-



ko igaro direla eta gauzak asko aldatu-ko zirela (espero dut), baina, bidean to-patzen ditudan gazte asko, akats ber-tsuak errepikatzen ikusten ditut.

Hezkuntza ez da soilik eskola kon-tua, guztion ardura da. Musika zaletua naizen aldetik, gazteekin saio batzuk egin izan ditut, musika munduari buruz dudak ikuspuntua azalduz (komuni-kabide handietan ematen denari kon-trajarria). Musika, komunikazio tresna aparta da eta erakargarria oso, baina, nik dakidala, gutxi landua eskola mun-duan (aisialdirako zerbait bezala ikus-ten da gehiago). Geografia eskolak le-kuan lekuko kantuen bidez imajina-tzen ditut; kultura eta hizkuntza desber-dinak ezagutzeko sarbidea izan daite-ke (ingelesean erabili ohi da), edo kan-tuen letrak aztertuta gai bati edo bestea-ri buruzko hausnarketa zabal dezake. Bidegabeko mundu honi buelta ema-teko borrokan, guztiok dugu zer esana. Bidea luzea da (amaigabea agian) bai-na bidai lagun ederrak ditugu alboan (Toni Lodeiroren *Consumir menos, vi-vir mejor* (Txalaparta argitaletxea) libu-rua, adibidez).



Aurtengo gabonetan jostailu salmenta ohi baino beranduago hasi den arren, ez da iazkoa baino eskasagoa izan. Hego Euskal Herrian 187 euro inguru gastatu dituzte haur bakoitzeko, iaz baino 13 euro gutxiago.

Iturria: Berria egunkaria, 2008-12-16.



# KUBAko hezkuntzarekin

## elkartasuna

*Udan izandako urakanek sortutako kalteei aurre egiteko laguntza behar du Kubak, eta Hik Hasik, urtarrilean hara goazenez, bertara eramateko eskola materiala bilduko du. Zehazki, Habanako Enrique Barona Goi mailako Institutu Pedagogikora (irakasle eskola) eramateko materiala bilduko dugu: arkatzak, boligrafoak, errotulagailuak, koadernoak (100 ale) eta informatikako materiala (disketeak, CDak eta pen-drive-ak).*

*Kubarekin zuen elkartasuna adierazi nahi baduzue, esker-tuko genizueke materiala gure bulegora ekartzea edo bidaltzea urtarrilaren 20a baino lehen.*

*Mila esker!*



Haur-jolasen abestiak I, II eta III CDetan agertzen ziren abestiak eta azalpenak eskaintzen dituen Liburu-CD bakar batean jaso ditugu, honela sailkatuta:

- "Euskaraz jolasten" eta "Trena" abestiak
- Bidaietako jolasak (5 abesti)
- Zotz egitekoak (3)
- Txalotako jolasak (5)
- Txikientzako jolasak (4)
- Korroan aritzekoak (6)
- Zabuan kantatzekoak (3)
- Behatzen jokoak (4)
- Gomatakoak (4)
- Pilotarekin jolastekoak (2)
- Lurrekoak (5)
- Ilaran jartzekoak (3)
- "Corrido" erakoak (2)
- Ezkutaketakoak (2)